



ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TOKIKO PLANA

(I)

2022 – 2026



Busturialdeko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea

Mancomunidad de Servicios
Sociales de Busturialdea

AURKIBIDEA

- 1.Sarrera**
- 2.Lege eta arau esparrua**
- 3.Eskuhartze printzipioak: esparru teorikoa**
- 4.Azterketa soziodemografikoa**
- 5.Adikzioen egoera**
- 6.Diagnostikoa eta beharrak komunitatearen arabera**
- 7.Helburuak eta lehentasunezko ildoak . Programak eta ekintzak**
- 8. Planaren jarraipena eta ebaluazioa**

1. SARRERA

Mendekotasunen arazoak biztanleria gehiena aspalditik kezkatu duen arren, Euskadin 80ko hamarkadan jarri ziren abian momentu horretan sortzen ari zen drogen kontsumoaren problematikari erantzuteko lehen ekimenak.

Kezka hori proiektutan, udal edota mankomunitate mailako prebentzioko talde komunitarioetan, islatzen hasi zen, Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen koordinazioarekin eta baita beste erakunde eta entitate batzuen lankidetzarekin ere. 1982an, droga-mendekotasunen arloko lehen jarduera-plana aurkeztu zen, eta, 1987tik aurrera, geroago garatu ziren tokiko eta foru-planen ernamuin izan zen EAEko droga-mendekotasunen Lehen Plana.

30 urte hauetan, laurogeiko hamarkadan zain-barneko heroinaren erabilerak sortutako arazoetatik – Gerora, neurri batean, gaizki deituriko diseinuko drogen erabilerak ordezkatu zuen – Estasia, speeda edo deribatu anfetaminiko ugari – geroago kokainaren eta deribatu kanabinoideen kontsumoaren hedapenera igaroz eta gaur egungo kezka nagusira iritsiz, hau da, alkohola kontsumitzen hasteko adina aurreratzea eta eredu anglosaxoia jarraitzen duen gazteen asteburuetako eta jai-eremuetako alkohol kontsumo handiak.

Gaur egun, kezkarik handienetako bat portaeren ingurukoa da, batez ere gazteen artean eta bereziki teknologia berriekin duten harremanean. Adikzio-modu berriak prebentzioaren xede gisa gehitu dira, gero eta kezka handiagoa dagoelako Internet eta sare sozialak modu desegokian edota gehiegikeriaz erabiltzen direlako, eta bestalde, IKTek beste jokabide-mendekotusun batzuen sarbidea errazten dutelako eta sustatzen dituztelako, hala nola ausazko jokoak.

Eta hori guztia aurretik egon diren adikzioak ahaztu gabe. Biztanleriak neurriz kanpo erabiltzen du alkoholaren kontsumoa, gure ingurunekeo gizarte-harremanak egituratzen dituen substantzia baita, eta erretako substantziek (kalamua eta tabakoa, esaterako) gure erkidegoko kontsumoaren zerrendaren gailurrean jarraitzen dute. Hori dela eta, kontsumo eta portaera horiek prebenitzeko egin daitekeen guztia gutxi da gizarte osasuntsuagoa, osasungarriagoa eta norberaren osasunaz eta ongizateaz arduratzen dena lortzeko.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Egoera horretatik sortu da Busturialdeko Mankomunitatearen Adikzioen I. Plana

Gernikan azken urteotan garatutako esperientziak atea ireki behar du, Ajangiz, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika, Ibarrengelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz y Sukarrieta udalerriek osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko helburu estrategikoekin bat egin ahal izateko. Helburu hauek lortzeko bidean garrantzitsua da biztanleriaren sektore guztien esku-hartzea, alkatetzetatik eta alderdi politikoetatik hasita, gizarte-, kultura-, kirol-, jolas- eta aisialdi-elkarteetara, ikastetxeetara, familietara, osasunera, tokiko eta autonomia-erkidegoko polizietara. Azken batean, guztion artean eta guztiontzat, gazteekiko, sozialki edota ekonomikoki behartsuenekiko eta adikzio-arazo duten edo izateko arriskua duten pertsoneneko konprometituago, justuago, osasuntsuago orekatsuagoa den gizarte bat lortu ahal izango dugu, guztion lankidetzaren bidez.



2. LEGE ETA ARAU ESPARRUA

2017-2021 Euskadiko Adikzioen VII. Planak ezartzen duen bezala, Adikzioen Plana euskal administrazio publikoek arlo horretan dituzten estrategiak eta jarduerak planifikatzeko, antolatze eta koordinatzeko tresna da, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak ezartzen duen bezala.

Osasun Publikoa eta Adikzioak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari esleitutako arloak dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariak abenduaren 15ean eman zuen 20/2012 Dekretuaren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera

1/2016 legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adikzioak arautzen dituen lege-testua da. Osasun publikoaren ikuspegitik, adikzioak eta droga-mendekotasunak artatzeko ereduaren oinarri gisa, legeak osasunaren sustapena, prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, laguntza, gizarteratzea eta prestakuntza eta ikerketa garatzen ditu. Lege honek diziplina anitzeko ikuspegi integral batetik heldu nahi die adikzioei, ohitura osasungarriak eta osasunaren kultura lortzeko eta osasuna eta prebentzio sustapena lehentasunezko jardun-eremu bihurtzeko.

Prebentzioaren arloaren barruan, eremu komunitarioa lehentasunezko eremuetako bat da, pertsonen eta horiek osatzen dituzten komunitateei ematen zaizkien zerbitzuak oso hurbil daudelako, eta, batez ere, udalek eta mankomunitateek garatzen dutelako. Zentzu honetan, prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzen eta mantentzen jarraitu nahi da, bai eta udalek tokiko planen edo, hala badagokio, foru-planen esparruan adikzioen arloan gauzatzen dituzten programak eta jarduerak ere, horiek egitea, garatzea eta gauzatzea haiei baitagokie.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 legeak honako eskumen hauek ematen dizkie udalei eta mankomunitateei:

68. artikulua. Udalen eskumena:

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan:

1. Adikzioen Tokiko Plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduerak egitea, garatzea eta gauzatzea, lege honetan, Euskadiko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, dagokion foru-planean jasotako aginduen arabera.
2. Adikzioen arloko aholku eta koordinazio-organoak sortzea eta haien funtzionamendua arautzea dagokion lurralde eremuan.
3. Adikzioen arloko sarien eta aintzatespenak kudeatzea, dagokien lurralde-eremuan.
4. Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen direla gainbegiratzea eta zaintzea.
5. Ikuskatzeko eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan aurreikusitako moduan.




69. artikulua. Aurrekontu konpromisoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, bai eta foru aldundi eta udaletakoetan ere, lege honetan jasotzen diren eta beren eskumenekoak diren jarduerak gauzatzeko kredituak aurreikusi beharko dituzte, aurrekontu-baliabideen, onartzen diren programen eta horretarako sinatutako hitzarmenen arabera.

70. artikulua. Euskadiko Adikzioen Plana.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Adikzioen Plana onartuko du, bost urtean behin. Plan hori, lege honen helburu eta irizpideekin bat etorriz eta osasun-planari lotuta, euskal administrazio publiko guztien estrategiak eta jarduerak planifikatzeko, antolatze eta koordinatzeko tresna estrategikoa izango da, indarrean dagoen bitartean.



13. artikulua. Adikzioen prebentzioa.

1. Lege honen esparruan, prebentzio-neurriak adikzioei, adikzioak eragin dituzten arrisku-faktoreei, kontsumo problematikoei eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen gehiegizko jokabideei aplikatuko zaizkie.
2. Administrazio publikoek, bereziki osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuek, prebentziozko neurriak hartuko dituzte, batez ere biztanleriaren sentsibilizazio eta orientaziora zuzenduak.
3. Botere publikoek, dagozkien jarduera-eremuen barruan, prebentziozko esku-hartzeak sustatuko dituzte, bizi-baldintzak hobetzeko, mendekotasunetan eragina duten bazterkeria-faktore pertsonalak, familiarrak edo sozialak gainditzeko, eta eragindako pertsonak komunitate-ingurunean modu normalizatuan gizarteratzen laguntzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, bazterketa eragiten duten egiturazko kausak aztertu eta prebenitzea, herritarrak beren ingurune pertsonalean, familiarrean eta sozialean integratzera eta gizarte-normalizazioa sustatzera bideratutako jarduerak lehentasunezko jardun-arlotzat hartuko dira, eta lehendik dauden gizarte-zerbitzuen programen barruan sustatu beharko dira.

Lege honen 9. artikuluan ezarritako osasun-hezkuntzaren arloko helburu orokorren osagarri gisa, osasun publikoko eta lehen mailako osasun-arretako zerbitzuek prebentzioz jardungo dute, erkidegoko eragileekin koordinatuta, bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko estrategia eta programen bidez, bai eta informazio-ekintzen, detekzio goiztiarreko kanpainen eta ohitura desegoki edo abusuzkoen aldaketen bidez ere.

15. artikulua. Prebentzioa familian

1. Gurasoak edo tutoreak haurtzaroan eta nerabezaroan babes-faktoreen sustapenean duten garrantziari buruz sentsibilizatzeko esku-hartzeak eta programak jarriko dira abian..
2. (...) Administrazio publikoek lankidetzaren eta koordinazio-bide eraginkor eta efizienteak ezarriko dituzte jarduera-eremu horretan esku hartzen duten erakunde

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

publiko guztien, guraso-elkarteen, erakunde pribatuen eta irabazi-asmorik ez duten erakundeen artean. Prebentzio-neurri hauek hartuko dira:

a).Familia guztiei zuzendutako adikzioei buruzko sentsibilizazio, informazio, prestakuntza, orientazio, aholkularitza eta esku-hartze psikoedukatiboko edo psikosozialeko jarduerak mantentzea, eta esku-hartze komunitarioaren bidez mantentzea.

e). (...) Arrisku egoeran edo kalteberatasun handieneko egoeran dauden familiei zuzendutako neurriak garatzea.

16. artikulua. Prebentzioa eremu komunitarioan

1. Komunitate eremuko prebentzioak lehentasuna du, eta biztanleengan edo interes handieneko taldeetan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak hartzen ditu, hala nola ikastetxeak, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, gazte-, kultura-, kirol- eta boluntarioritza-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak.

2. Erkidego mailako prebentzioa, batez ere, udalek eta mankomunitateek garatuko dute, beren eskumenen arabera, pertsonen eta kide diren komunitateei ematen dizkieten zerbitzuen hurbiltasunagatik

17. artikulua. Prebentzioa hezkuntza eremuan

(...) Horregatik guztiagatik, garatu beharreko prebentzio-neurri hauek ezarriko dira, ez bakarrik noizean behin, baita, ahal dela, ikasturtean zehar ere:

a) Hezkuntza-komunitateko sektoreei zuzendutako neurriak.

a.1. Adin guztietako ikasleak informatuta mantentzea eta sentsibilizatzea sustantzien kontsumoaz eta gehiegizko jarreraren inguruan: zorizko jokoak, telebista eta teknologia digitalen erabilera (Internet, sare sozialak, bideo-jokoak, mugikorra), aplikazio berriak eta eurengatik eratorri daitezkeen beste arrisku batzuk.

a.2. (...) Lehentasuna emango zaie ikasleriaren norbere ezagutza, auto-estimua, emozioen kudeaketa, oldarkortasunaren kontrola, norbere autonomia, erabakiak

hartzeko gaitasuna eta onarpen gizarte baloreak sustatzen dituzten baliabideen erabilerari.

a.3. Irakasle zien beste langile eta guraso edo tutoreei zuzendutako programa arauemaileak sortuko dira. Horietan, aurreko paragrafoan ikasleek garatu beharreko kompetentziak sustatzeko baliabide pedagogikoak landuko dira talde desberdinetan.

b) Arrisku-egoeran dauden adingabeentzako neurriak ikasleak substantziaren batekiko edo jokabide-adikzioen batekiko mendekotasuna garatzeko arriskuaz jabetu dadin eta horiei aurre egiteko gaitasunak indartu ditzan, autokontrolerako edo autoebaluaziorako tresnak bere esku jarritz.

22. artikulua. Prebentzioa kirolaren, aisialdiaren eta denbora librearen esparruan.

1. Osasun, gazteria, kirol, kultura eta hezkuntzaz arduratzen diren euskal administrazio aginpidedunek, substantzien kontsumoa, jarrera adiktiboa eta jokabidezko adikzioak eratzeko arriskua duten jokabideak ez diren aisialdi ereduak sustatzen dituen politika eredu integralak bultzatuko dituzte.

2. Horretarako, hurrengo ekintzak eramango dira aurrera [...]:

a) Dibertsioa, aisia eta denbora libre erabiltzeko modu osasungarri eta dibertsifikatuak hartzea) Teknologia digitalen eta aisiarako, denbora librerako eta dibertsiorako aplikazio berrien erabilera arduradunaren sustapena egitea.[...]

b) Teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea, dibertsiorako, aisialdirako eta astialdirako. [...]

c) Gazteen asoziazionismoa eta elkarteek okupazio, aisialdi, kirol edo kultura-programetan parte hartzea bultzatzea, bereziki arrisku egoeran dauden gizataldeei zuzendua.



3. ESKUHARTZEKO PRINTZPIOAK: MARKO TEORIKOA

Adikzioen jatorria arrazoi eta faktore anitzetan dago eta bere sorrera eta mantentzean era desberdinetara eragiten dute. Asko eta askotarikoak dira fenomenoak interpretatzen saiatzen diren eredu teorikoak. Teorien sistematizazioari, horien operatibizazioari eta urte hauetan egindako ebaluazioari esker, horietako asko baieztatu ahal izan dira, eta ondorioz, fenomenoak ulertzeko eta adikzioak aurreikusteko eta jorratzeko benetan baliagarriak direnak hautatu ahal izan dira. Hala ere, kontsumoaren eta gehiegikeriaren arrazoi nagusia azaltzen duen teoria bakarra ez dago. (2012KO IRAGARKIA).

Baieztapen horren alde eginez, adikzioak azaltzen laguntzen duten hainbat eredu teoriko jasotzen dira jarraian. Horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

Eredu ekologikoa (Bronfenbrenner, 1981)

Eredu honen arabera, pertsonen garapena, haien eta pertsona euren ingurunearen arteko egokitzapen progresiboaren emaitza dela. Harreman hori bi noranzkoa da, eta horrek esan nahi du pertsona inplikaturik dagoela giroan, eta, beraz, horretan ere eragina duela.

Pertsonaren eta ingurunearen arteko bi noranzkoko dinamika horretan, nerabeak eta gazteak, euren bizi zikloan zehar, arrisku egoera ugariren eraginpean egongo dira, eta, logikoa den bezala, baita babes-egoera ugariren eraginpean ere.

Eredu ekologikoaren arabera, jokabide arriskutsuen jatorria eta horien ondorioen larritasuna ulertzeko eta prebenitzeko, beharrezkoa da ikuspegi interaktibo bat hartzea, nerabezaroaren ezaugarriak eta honek ingurunearekin ezartzen duen interakzioa kontuan hartuta; eta horiek hainbat mailatan deskribatuta edo azalduta.

Horrela, elkarri lotuta dauden hiru elementu nagusi hartu behar dira kontuan: adikzioaren jokabideak (substantzia edo portaera), subjektua (faktore psikikoak eta psikosozialak) eta ingurunea (adikzioaren gizarte-balorazioa, gizarte-egoera orokorrak).

Eredu sozialak (Stanton Peele, 1985) adikzioek gure bizimoduan duten paperean oinarritzen da, adikzioa pertsonak bere esperientzia interpretatzeko duen moduagatik gertatzen baita. Munduari aurre egiteko moduak eta bere burua ikusteko moduak, iraganeko esperientziek, nortasunak eta gizarte-inguruneak zehaztuta, funtsezko eragina dute drogen kontsumo-esperientzian eta horiei aurre egiteko moduan.

Drogak eta adikzioa sortzen duten jokabideak (teknologia digitalen erabilera, esaterako) makulu moduko batzuk dira, eta subjektu batzuek beren bizitzari hobeto aurre egiteko erabiltzen dituzte estres, antsietate, sufrimendu, ezegonkortasun...bezalako egoeretan.

Adikzioak nahi dena lortzeko balioko luke, bere buruarekin pozik egoteko gai ez delako. Teknologia digitalak erabiltzeak edo gehiegi erabiltzeak aukera ematen du ingurukoetatik deskonektatzeko (une batez bada ere), nolabait asegabetasunetik eta frustraziotik aldentzeko.

Eredu horren arabera, gure kulturak adikzioak bultzatzen ditu, arrakasta lortzea eta berehalako gogobetetzea baitira balio nagusiak. Lortzen zaila denez, eta gure egungo errealitate sozioekonomikoaren konplexutasunari aurre egitea gero eta zailagoa denez, batez ere gazteentzat, mendekotasunen hazkundeak, ihes egiteko funtzioarekin, gora egingo du ziurrenik. Autore honek, batez ere, arreta berezia jartzen dio alkoholari, droga honek inhibizioak eta antsietateak alde batera uztea eta balio-sentsazioa areagotzea ahalbidetzen baitu. Gaur egungo gizarte konplexu eta zail honetan, alkoholaren erabilera gazteen artean areagotzea aurreikus daiteke, legeztatuta egoteaz gain, gazteen artean arriskuak hutsalduta egoteaz eta irisgarritasun erraza izateaz gain.




Alkohola edo beste droga batzuren kontsumoa edo IKT-en erabilera adikzio arazo bat bihur ez daitezen, oinarritzko alderdia da pertsonak autokontrola garatuta izatea. Honek, alkoholaren neurrizko erabilera eta erabilera kaltegarri eta problematiko bat bereizten ikastea dakar eta asebetetzea beste era batetara bilatzen jakitea.

Konpetentzia sozialaren eredua norbanakoen edo taldeen defizitetan baino gehiago dauden konpetentzietan zentratzen da. Garapen kognitiboa sustatzeko prebentzio-jardueren diseinua eta portaera egokituagoak baimentzen dituzten trebetasun

sozioemozionalen lanketa nabarmentzen ditu, hauek, bizitzako erronka desberdinei aurre egiteko trebetasunak bait dira. Elkarrekintza sozialerako banakako gaitasunak babes-faktore gisa jarduten du adikzioen aurrean, beraz, ezinbestekoa da gizabanakoak prestatzea arrisku-egoerei aurre egiteko baliabideak izatea.

Eredu biopsikosozial horren
ekarpen nagusietako bat,
prebentzioaren arloan, "Arrisku-
faktorea" kontzeptua da.

prebentzioaren arloko definiziorik argigarrienetako bat izan da, ez soilik esan nahi duenagatik, baita adikzioarekin lotura handia duten elementu, egoera edo gertaerak mugatzeko orduan duen eraginkortasunagatik ere. Ikuspegi horretatik, arrisku-faktoretzat hartzen da subjektu bat mendekotasun batean hasteko eta mantentzeko probabilitatea handitzen duten inguruabar, gertaera eta elementu pertsonal edo sozialen multzoa.



Une jakin batean bat egin dezaketen eta pertsona batek mendekotasun batekiko duen kalteberatasuna areagotu dezaketen aukera-baldintzak dira. Ez dago kausalitate zuzenik arrisku-faktoreen eta adikzio-faktoreen artean, baina jakina da arrisku-faktoreen uztarketak subjektuen kalteberatasuna piztu dezakeela eta mendekotasunaren aldeko alde zuzeneko jarrera eragin dezaketela.

Babes-faktoreak ezaugarri biologiko, psikologiko eta sozialak dira, eta horien presentziak garapena errazten du, potentzialtasunak adieraztea ahalbidetzen du eta arrisku-faktoreek gizabanakoarengan eta familian duten eragina blokeatzen du.



Arriskuko kolektiboetan egin berri diren azterketek (Scales eta Leffert, 1999); Tolan, et al., 2000) arriskuan dauden gazteen herenak arrisku-baldintza horiek betetzen dituela adierazten dute, baina gainerako bi herenek ez. Aurretik aipatutako egileen arabera, babes-faktoreek eta erresilientzia-ezaugarriek arrisku-faktoreek baino ahalmen prediktibo handiagoa dutela da arrazoia, beraz, ikerketa hauen ondorioek oinarri bezala balio dute adin talde horiekin prebentzio esku-hartzeak

planifikatzeko.

Eva Peñafiel-eren arabera (2009), nerabeen arrisku eta babes faktoreei buruzko ikerketan, *arrisku-faktoreak modu horretan aztertzea oso garrantzitsua da prebentzio-estrategiak diseinatzeko, esku-hartuko den hartzaileen arabera. Hala, prebentzio-programa unibertsalak ezar litezke, herritar guztiei zuzenduak, bai eta prebentzio selektibokoak ere, eta oso ondo definituko lirateke arrisku-profilak eta xede duten biztanleriaren babesa.*

Adikzioen prebentzioa **eredu komunitario** batetik heltzean, testuinguru mikrosozialak (familia, lagun taldea, auzoa, etab.) kontuan hartu behar dira, gertaeren jatorri eta garapenean. Honen harira, ezinbestekoa da komunitatearen parte-hartze antolatua beharrezkoa dela onartzea konponbideen bilaketa prozesuan, izan ere oso garrantzitsua da komunitatea definitzen duten gizarte arlo desberdinetan aldi berean lan egitea. Honako markoak hurrengo ezaugarriak ditu:

- ✚ Komunitatea, esku-hartzearen lurralde sinboliko, eragile eta hartzaile gisa..
- ✚ Udalerria, proposamenak sustatu eta indartuko dituen tokia izan behar da.
- ✚ Komunitate antolatuaren dinamizazioa, inplikaturako gizarte-erakundeen arteko sareak bultzatuz.
- ✚ Gizarte-bitartekarien funtsezko eginkizuna; izan ere, pertsona horiek dira prebentzioaren funtsezko uneak.
- ✚ Gizarte-eragileak beren zeregina garatzen duten espazioetara egokitutako prebentzio-estrategietan prestatzea.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Komunitate bateko altxorrik preziatuena pertsonak direla nabarmendu beharra dago, bereziki lurralde bateko bizilagunek dituzten gaitasunak. Ikuspuntu komunitarioaren ustetan, pertsonen gaitasunez baliatu behar da eskaera eta beharrizanei aurre egin ahal izateko: gizarte agente eta erakunde



desberdinen erantzunkidetasuna sustatu eta ahaldu behar da, mendekotasunekin erlazionatutako arazoei erantzun egokia eman ahal izateko toki zehatz batean, kasu honetan Busturialdean.

Kontsumo murrizketara edo eskaera zehatzei zuzendutako prebentzio esku-hartzeak, **PREBENTZIO MAILA** desberdinetan oinarritutako **EGITURAKETA** jarraitzen dute, maila bakoitzean agertzen diren beharrizanen arabera:

Prebentzio unibertsala: biztanleria orokorrarentzako programak biltzen ditu, banakako arrisku-egoerak kontuan hartu gabe. Drogen erabilera eta abusua eragozteko eta atzeratzeko edo drogen edo mendekotasun-portaeren erabilera murrizteko diseinatu dira. Horretarako, bitarteko helburutzat har daitezke bitartekaritza-aldagaietan aldaketak lortzea, hala nola, mitoak argitzea, gizarte-harremanetarako trebetasunak areagotzea, kontsumoa sustatzen duten presioen aurrean gaitasun kritikoa areagotzea, erabilerari lotutako arriskuaren pertzepzioa areagotzea... Edozein esku-hartze eremutarako diseina daiteke: komunitarioa, eskolakoa, familiakoa, astialdia, komunikabideak, lanekoa, eta abar.

Prebentzio selektiboa: arrisku faktoretzat jotako edozein aldagai biologiko, psikologiko, sozial edo ingurune-aldagaien arabera drogak kontsumitzeko eta abusatzeiko arrisku berezia duten kolektibo espezifikoek zuzenduta dago. Drogak kontsumitzen hastearekin edo kontsumoarekin lotutako arazoak garatzearekin lotuta dago, adinaren, generoaren, familia-historiaren, bizilekuaren (gabezia sozial handiena dagoen auzoak, substantzia adiktiboaren trafikoa gertatzen den auzoak, ...).

Drogak kontsumitzen hastea prebenitzeko edo lehen kontsumoa gertatzen den adina atzeratzeko diseinatu daude, arrisku-faktore gehiagoren eraginpean dauden biztanleria taldeen artean. Hau da, parte-hartzaileek herritar guztiek baino kalteberatasun handiagoa dute.

Prebentzio adierazia: Biztanleriaren azpitalde jakin batera bideratua, arrisku handikoa, kontsumoei lotutako arazoak dituen. Esku-hartzeak toxikoen erabilerari ekitera ez ezik, arazo erantsiak murriztera ere bideratu behar dira.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- ✓ Adikzioaren finkapena erregulatzean eta/edo geldiaraztean, noizbehinkako erabileraren progresiboa geldiarazteko diseinatuta dago.
- ✓ Hainbat jokabide arriskutsutara aldi berean bideratu ahal izatea (tabakoa eta kalamua erabiltzea, alkohola, tabakoa eta droga sintetikoak erabiltzea)
- ✓ Berariaz baloratzea eta lantzea banakako arrisku-faktoreak eta portaera-arazoak.
- ✓ Denboran zehar zabalak eta aldi berean sakonak.
- ✓ ...

Prebentzio mugatua: Droga-mendekoen kolektiboari zuzendua, substantzien erabilera jarraituak dakartzan arrisku sozial eta sanitarioak prebenitzeko.

Azken batean, eredu komunitarioak jarraibide hauek ezartzen ditu:

Ez dago prebentzioaz arduratzeko erantzukizun eskusiboa bere gain har dezakeen profesionalik.

Adikzioak bizitza-estiloekin lotutako fenomeno da, eta, beraz, beharrezkoa da haren konfigurazioan eragina duten gizarte-eragile guztiei aurre egitea: gurasoei, hezitzaileei, elkarteei eta abarri.

Droga-abusua eta jokabide-adikzioak ez dira administrazioek bakarrik konpon ditzaketen gaiak. Gizarte zibilak berak mobilizatu behar du bere zailtasunei aurre egiteko.

Administrazioek, bizitza publikoaren kudeatzaileek, kezka hori beren gain hartu behar dute, eta konpromisoa funtsean pedagogikoa eta lagungarria izan behar da, dagozkien erantzukizunak betez.

4. AZTERKETA SOZIODEMOGRFIKOA:

BUSTURIALDEKO ESKUALDEA vs BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Geografikoki, Busturialdea Bizkaiko lurralde Historikoa osatzen duten zazpi eskualdeetako bat da. Mendebaldean Uribe eta Bilbo Handia eskualdeak ditu mugakide; ekialdean Lea-Artibai eskualdea; hegoaldean Durangaldea, guztiak Bizkaiko lurraldean, eta iparraldean Kantauri itsasoa.



Busturiako Merindade zaharraren oinordekoa da.

Busturialdeko eskualdeak edertasun paisajistiko eta natural handia du. 282 Km²-ko guztizko hedadurarekin (Bizkaiko lurraldearen % 12,7).

Busturialdeko Eskualdea 20 udalerrik osatzen duten arren, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea 19 udalerrik osatzen dute, batez ere landa-eremukoak; izan ere, lau udalerrik baino ez dute mila biztanle baino gehiago guztizko 29.333 biztanletik; horietatik 14.374 gizonak dira (% 49) eta 14.959 emakume (% 51). Honela banatzen dira adina eta sexuaren arabera.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	2.812	2.624	5.436	%18.4
20 – 64	8.463	8.351	16.814	%57.9
>64	3.099	3.984	7.083	%23.7
GUZTIRA	14.374	14.959	29.333	%100

Iturria: Eustat. 2021-eko datuak

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

1. **Ajangiz:** Ajangiz Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren epizentroan dago. Ajangizen nagusi den paisaia landazabal atlantikoa da. Baso-masa txikiak, zelaiak eta landatzeko moduko lurrak daude. Faunari dagokionez, ugaztun txikiak, satiro edo loro gorriak kasu, animalia garrantzitsuenen artean daude. 440 biztanle ditu, honela banatuta:



ADINA	Gizona	Emakumea	Total	%
0 – 19	49	41	90	%19.3
20 – 64	147	121	268	%57.5
>64	50	58	108	%23.2
GUZTIRA	246	220	466	%100

2. **Arratzu** Bere azaleraren %100 Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan dago. 415 biztanle ditu, honela banatuta:

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	35	45	80	%19.3
20 – 64	106	116	222	%53.6
>64	57	55	112	%27.1
GUZTIRA	198	216	414	%100



Iturria: Eustat. 2021eko datuak

3. **Busturia** Mundakako itsasadarraren ezkerreko ertzean kokatzen da, Sollube mendiaren oinean, Oka ibaiaren estuarioaren barruan, Kantauri itsasoaren ertzean. Mundakako itsasadarraren ezkerreko ertzean dagoen udalerria, Sollube mendiaren oinean, Oka ibaiaren estuarioaren barruan, Kantauri itsasoaren ertzean. Udalerrria zazpi auzok osatzen dute: Busturiako Axpe (Busturi-Axpe), San Bartolome (San Bartolome edo Amunategi), Altamira, San Kristobal, Itxasbegi, Goiherri eta Paresi. Axpe udalerriaren administrazio-hiriburua da, herriko udaletxea auzoan baitago. 1.607 biztanle ditu, honela banatuta:



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	142	143	285	%17.3
20 – 64	465	440	905	%54.8
>64	205	255	460	%27.9
GUZTIRA	812	838	1.650	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

4. **Ea** Busturialdeko eskualdearen ipar-ekialdean dago, 14,02 km²-ko hedadura du eta iparraldean itsasoarekin egiten du muga, hegoaldean Ereño eta Ispaster udalerriekin eta Ibarrangelurekin mendebaldean. Kostaldea, oro har, altua da, leku batzuetan 100 metrotik gorakoa; bertan, Punta Ermintxo, Natxituko Lapatzako senadia eta Punta de Ea (Bedarona) nabarmentzen dira. Itsasertz malkartsu horretan dago Eako senadia, portu txiki bat eta hondartza batekin. Barrualdean, haran sakonak eta mendi-hegal malkartsuak dituen erliebe malkartsua dago, eta bertan dago udalerriaren hiriburua. Erreka garrantzitsu bakarrak, Argin ibaia eta Goikoetxea, Eako badia txikian amaitzen dira, itsasadar bihurturik. Udalerria Natxitua eta Bedarona hiriguneek osatzen dute. Azkenik, Angelutxuko landa-gunea Ea eta Natxitua arteko erdibidean dagoen baserri-multzo txiki batek osatzen du.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	57	54	111	%13.2
20 – 64	280	219	499	%59.2
>64	107	126	233	%27.6
GUZTIRA	444	399	843	%100



Iturria: Eustat. 2021eko datuak

5. **Elantxobe** Ogoño lurmuturraren harri-moldearen ekialdeko hegalean dago, arrantza-portua babesten duena, baina bere inklinazio izugarriak kale estu eta aldapatsuz osatutako ur-jauzi bat osatzen du, non etxeek teilatu-eskailera bat osatzen dutela dirudien, itsas ertzeraino iristen dena. Hiribildua 1524an sortu zen arrantza-portuarekin batera, eta XVII. mendean nolabaiteko garrantzia hartu zuen Bizkaiko kostaldea babesteko portu gisa, gaur egun kirol-portu gisa erabiltzen dena. XIX. mendean, Elantxobeko arrantza-industriak goranzko unea bizi zuen, eta zazpi eskabetxe-fabrika eta kontserba-fabrika bat hartu zituen.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	21	19	40	%11.6
20 – 64	95	97	192	%55.5
>64	54	60	114	%32.9
GUZTIRA	170	176	346	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

6. Ereño Mendiz inguratutako udalerria da eta Gernika-Lumo eta Lekeitioren artean kokatzen da. Bere marmolagatik eta harrobiengatik da ezaguna eta hainbat leku interesgarri eta monumentu ditu: San Migel Eliza, Ereñozarreko San Migel ermitara igota Bizkaiko panoramika bikaina ikusteko aukera edo Poto haitzuloa. Guztira, 276 biztanle ditu eta honela banatzen dira:



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	27	16	43	%15.7
20 – 64	92	60	152	%55.5
>64	37	42	79	%28.8
GUZTIRA	156	118	274	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

7. Errigoiti 1376an sortu zen Idoibalzagako Santa Maria elizatean, Oka bailara eta Butroekoa lotzen zituen bidea defendatzeko. Urdaibaiko Biosferaren Erreserban dago bere udal lurraldea, 16,42 km-koa. Herri landatarra da batez ere.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	39	35	74	%15.2
20 – 64	173	125	298	%61.2
>64	60	55	115	%23.6
GUZTIRA	272	215	487	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak



8. Forua 9km² hedadura du, eta Oka ibaiaren ezker aldean dago, Urdaibaiko ibarraren bihotzean, Gernika, Errigoiti, Kortezubi eta Muruetarekin muga egiten duen tokian. Herria hainbat gunetan sakabanatuta dago, eta guneei administratibo eta erlijiosoak Elejalde auzoko muinoan dago, Tourseko San Martin parrokiaren inguruan.



ADINA	Gizona	Emakume	Guztira	%
0 – 19	63	81	144	%15.7
20 – 64	277	268	545	%59.2
>64	114	117	231	%25.1
GUZTIRA	454	466	920	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

9. Gauegiz Arteaga 13,57 km²-ko azalerarekin, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako guneei pribilegiatu batean dago, dibertsitate ekologiko handia duen ingurune natural zabalarekin. Ibilbidearen ukitu kulturala bi eraikinek ematen dute: Santa Maria eliza, XVI. mendekoa, eta Arteagako gaztelua, eskualde osoko eraikin garrantzitsuenetakoa. Eliza XII. mendean eraiki zuten eta 1620an berreraiki. Gaztelua, berriz, Eugenia de Montijo enperatrizaren aginduz eraiki zen, eta horretarako Gauegiz Arteagako harrobietako marmolak erabili ziren.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Arteagako dorretik hurbil, Urdaibai Bird Center dago, European erreferentzia den ikerketa-zentroa eta museo ornitologikoa. Paduraren behatoki bakarra da, eta mundu osoko hegaztien ehunka zalek bisitatzen dute urtero hango hegazti enblematikoak ikusteko.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	79	67	146	%16.7
20 – 64	277	258	535	%61.4
>64	85	106	191	%21.9
GUZTIRA	441	431	872	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak



10. Gernika-Lumo Oka ibaiaren iberrean dago, Gernikako itsasadarraren ertzean. Oka ibaiaren bokalean dago eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren muina da. Udalerrria XIX. mendean sortu zen, Lumoko elizatea eta Gernikako hiribildua elkartu ondoren. Bertan biltzen ziren Bizkaiko Batzar Nagusiak, Gernikako Arbola izeneko haritzarekin, bizkaitarren askatasunen sinboloa, eta, antzina, Bizkaiko jaunek, titulua jaso ondoren, Bizkaiko forua errespetatuko zutela zin egiten zuten.

1937ko apirilaren 26an, Espainiako Gerra Zibilean, hiria bonbardatu zuen Condor legioak, Luftwaffeko aireko unitateak, kausa frankistaren zerbitzura. Gertaera horietan oinarrituta, Pablo Picassok 1937ko Parisko Nazioarteko Erakusketan aurkeztutako "Guernica" lana margotu zuen.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	1.720	1.616	3.336	%19.8
20 – 64	4.679	4.865	9.544	%56.7
>64	1.649	2.297	3.946	%23.5
GUZTIRA	8.048	8.778	16.826	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

11. Ibarrangelu kostaldeko udalerrria da, nahiz eta herriaren gune nagusia, Ibarrangelu eta Elejalde izenekin ezagutzen dena, Ogoño lurmuturraren atzean dago, kostarekin komunikatzen zen haran txiki batean. Kokapen estrategiko horrek, itsasotik oso gertu, baina kostaldetik ikusten ez bazen ere, aukera ematen zien herritarrei ozeanotik zetozen bisita desiragarrien aurrean ezkutuan egoteko eta, aldi berean, ozeanoak distantzia txikian eskaintzen zizkien baliabideez baliatzeko.

Udalerri hau bereziki ezaguna da bere udal mugapean Laga eta Laidako hondartzak daudelako, Bizkaiko hondartza enblematikoenetakoa bi.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	42	43	85	%12.5
20 – 64	236	200	436	%63.8
>64	72	90	162	%23.7
GUZTIRA	350	333	683	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak



12. Kortezubi paisaia, ekologia eta kultura-ondare zabala duen udalerria da. Historiaurreko garaietan, gure arbasoek hautatu zuten bizileku gisa, baliabide eta kobazulo ugarien erosotasunak erakarri zituen, zalantzarik gabe. Horren erakusgarri da Santimamiñeko koba, 1917an aurkitu zen bertan berrogeita hamar irudi zituela; Unescok Gizateriaren Ondare izendatu zuen. Aipagarria da, halaber, Agustin Ibarrola eta Basondoren "margotutako basoa", 60.000 metro belardi eta baso, mehatxatutako basa faunarentzako babeslekua: basurdeak, azeriak, orkatzak, jinetak, igarabak, hegazti harrapariak...

Bere auzo nagusia Enderika da, Urdaibaiko paduraren ondoan. Oma, Terlekiz, Idiokiliz, Basondo, Elorriaga eta Barrutia auzoak osatzen dute udalerria.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	40	56	96	%21.6
20 – 64	132	124	256	%57.5
>64	43	50	93	%20.9
GUZTIRA	215	230	445	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak

13. Mendata eskualdearen hegoaldeko muturrean dago, Oiz mendiaren iparraldeko ingurabidean. Herritik, Golako ibaitik eta Berrekondotik igarotzen diren ibaiek haran estuak eratzen dituzte, eta, bereziki, azken horretan, giza asentamendua eragozten dute. Olabe, Elexalde, Marmiz eta, bereziki, Albiz auzune txikietan nukleo anitzeko populazioa nagusitzen da, udalerriko herrigunea Elexalde auzoan kokatuz. Bere biztanleria honela banatzen da:

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	39	40	79	%19.5
20 – 64	123	114	237	%58.7
>64	42	46	88	%21.8
GUZTIRA	204	200	404	%100

Iturria: Eustat. 2021eko datuak



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

14. Morga Morga Bizkaiaren erdigunean dago, Mungia eta Gernika bitartean, eta Gernika eta Plentziako itsasadar arroak banatzen dute. Antzinako kostaldeko Donejakue bidearen igarobidea. Morgako mendi garrantzitsuenen artean Bizkargi (562 m) "Bizkaiko Bihotza" izenaz ere ezaguna, Mendigana (274 m) eta Urkulu (370 m) daude. Bizkargi mendiaren gainetik eta Altamirako tontorretatik bailararen ikuspegi bikainaz gozatzen da. Morgako herri mugakideak honakoak dira: Errigoiti eta Arrieta iparraldean, Zornotza eta Larrabetzu hegoaldean, Errigoiti eta Muxika ekialdean, eta Gamiz-Fika eta Fruiz mendebaldean.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	34	22	56	%13.4
20 – 64	127	115	242	%57.9
>64	50	70	120	%28.7
GUZTIRA	211	207	418	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak

15. Mundaka bere izena duen itsasadarraren bokalean dagoen udalerria da. Bere jatorria oso zaharra eta ezezaguna da, bere antzinatasunaren froga da Mundakak Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusietako lehen postua eta botoa bete zituela, eta, beraz, Jaurerriko elizaterik zaharrena dela interpretatzen da.

Herria arrantzan eta itsas merkataritzan jardun izan zen aintzina (arrantzaleen kofradia baten egoitza garrantzitsua izan zen). XIX. mendearen amaieratik eta XX. mendearen hasieratik, elizatea modernizatu eta eraldatu egin zen, eta diru-iturri berri bat sortu zen, turismoa. Batez ere 80ko hamarkadatik aurrera izan zen, surfak Euskal Herri osoan izan zuen gorakadarekin, eta batez ere udalerrri honetan, bere ezker olatu ospetsuari esker.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	157	141	298	%15.9
20 – 64	527	552	1.079	%57.4
>64	217	284	501	%26.7
GUZTIRA	901	977	1.878	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak



16. Murueta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dagoen udalerria da. Hegoaldean Errigoiti eta Forua ditu mugakide, iparraldean Busturia eta Gauegiz Arteaga, mendebaldean Busturia eta ekialdean Gauegiz Arteaga. Udalerriko enpresa nagusia Astilleros de Murueta SA da, 130 metro arteko luzera duten arrantza-ontziak eta merkataritza-ontziak egiten ditu, eta atunontzi izoztaileetan espezializatuta dago.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	33	31	64	%20.2
20 – 64	103	96	199	%63.0
>64	24	29	53	%16.8
GUZTIRA	160	156	316	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak

17. Muxikako udalerria Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren hegoaldean dago. 4 eskualde ezberdinei begira, 1965era arte hiru elizate independenteren batasunaren emaitza da: Ibarruri, Muxika eta Gorozika. Bere lurraldea landazabal atlantikoko paisaiak eta lurralde zabal batean sakabanatuta dauden auzoek argi eta garbi markatzen dute. Kasu gehienetan, ondare kultural eta historiko baliotsua gordetzen dute, batez ere baserriaren arkitekturan eta jarduera tradizional gisa.

ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	187	128	315	%21.4
20 – 64	445	411	856	%58.2
>64	146	154	300	%20.4
GUZTIRA	778	693	1.471	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak



18. Nabarniz Bizkaiko ipar-mendebaldean dago, Busturialdean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan. Sei auzok osatzen dute: Ikazurieta, Intxaurraga, Uribarri-Zabaleta, Elexalde, Merika eta Lekerika. Nabarnizko lehen biztanleen aztarnek Eneolitara garamatzate, 2800. urtean AC., Ikazurieta auzoko Ondaro haitzuloan aurkitutako hezurretan ikus daitekeen bezala. Zeltek ere okupatu zituzten lur horiek VI. Mendean, Ilunzar mendian eta Arrola-Gastiburu mendian gotorleku defentsibo bana eraikiz, handik Mundakako itsasadar osoa zaintzeko.



ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	25	26	51	%19.4
20 – 64	71	85	156	%59.3
>64	25	31	56	%21.3
GUZTIRA	121	142	263	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

19. Sukarrieta kostaldeko herria da, Mundakaren auzokidea eta Urdaibain turismoa bultzatzen aitzindarietako bat. Bizkaiko lurralde historikoko kokagunerik zaharrenetako bat da, eta udako hilabeteetan udatiarren etorrerarekin biderkatzen da bertako populazioa. Sukarrietan, Txatxarramendi uhartea, paduraren parkea, Portuondoko senadia eta Legendikako eliza nabarmentzen dira.


ADINA	Gizona	Emakumea	Guztira	%
0 – 19	23	20	43	%12.0
20 – 64	108	85	193	%54.1
>64	62	59	121	%33.9
GUZTIRA	193	164	357	%100

Iturria: Eustat.2021eko datuak



Biztanleria atzeritarra

Busturialdean bizi diren atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak gora egin du azken hamar urteetan: 2010ean % 7,9 (2.216 biztanle), 2015ean % 8.8 (2.486 biztanle) eta 2020an %10.5 (2.970 biztanle).



Iturria: Eustat. 2020ko datuak

2020ko 2.970 atzeritarretatik, % 72,8 edo 2.163 Gernika-Lumokoak dira, % 12.9ko tasarekin. Ea (% 10.4 edo 87 pertsona) eta Gauteigiz Arteaga (% 9 edo 76 pertsona) dira tasa altuenak dituztenak, baina Kortezubi eta Mendata dira tasa bikoiztu duten udalerriak, 2010ean % 4,3 izatetik Kortezubin % 8.6 izatera eta Mendatan % 3.3

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

izatetik % 7.7 izatera igaro baitira. Sukarrietaren (egungo % 4,8) eta Mundakaren (% 6,9) tasak, aldiz, % 10.6 eta % 11.2 jaitsi dira, hurrenez hurren, 2010aren aldean.

Euskara maila

Busturialdeko Mankomunitateak Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (euskaldunen % 42.2, euskaldunen % 18.5 eta erdaldunen % 39.3) eta Bizkaikoa (% 36.6, % 19.7 eta % 43.7) baino askoz ere euskalduntze-maila handiagoa du, Eustaten 2016ko datuen arabera.

Tasarik altuenak Ajangizek eta Arratzuk dituzte, euskaldunen % 91,6 eta % 90; ondoren Ereñok, Kortezubik eta Elantxobek, % 88.9, % 88.5 eta % 88.3; eta Ea, Errigoiti, Gautegiz Arteaga, Mendata, Morga, Murueta, Muxika eta Nabarnizek, % 80tik gorako euskalduntze-tasekin.

Herria	Euskaldunak	Erdi Euskaldunak	Erdaldunak
Ajangiz	% 91.6	% 4.0	% 4.4
Arratzu	% 90.0	% 4.4	% 5.6
Busturia	% 68.3	% 12.4	% 19.3
Ea	% 80.1	% 8.0	% 11.9
Elantxobe	% 88.3	% 5.4	% 6.3
Ereño	% 88.9	% 4.8	% 6.3
Errigoiti	% 80.2	% 9.0	% 10.8
Forua	% 76.9	% 9.9	% 13.2
Gautegiz Arteaga	% 80.2	% 10.5	% 9.3
Gernika	% 69.9	% 11.6	% 18.5
Ibarrangelu	% 79.0	% 9.3	% 11.7
Kortezubi	% 88.5	% 6.0	% 5.5
Mendata	% 83.9	% 10.0	% 6.1
Morga	% 84.9	% 5.0	% 10.1
Mundaka	% 70.2	% 12.5	% 17.3
Murueta	% 84.9	% 6.2	% 8.9
Muxika	% 85.1	% 7.2	% 7.7
Nabarniz	% 87.1	% 10.1	% 2.8
Sukarrieta	% 65.8	% 17.1	% 17.1

Iturria: Eustat. 2016ko datuak

Barneko Produktu Gordina (BPG)

Busturialdeko per capita BPG txikia da 2018an Euskal AE-koarekin alderatuta (35.201 €) eta Bizkaikoa (34.043 €); izan ere, Ajangizekoa izan ezik (227.566 €) (Bizkaikoa baino ia 6.7 aldiz handiagoa) Sukarrietakoa (36.015 €), gainerako herri guztiak Bizkaiko batez bestekoaren azpitik daude. Mendata izan zen, 10.732 €-rekin Mankomunitateko baxuena.

	BPG PER CAPITA	eurotan
Herria	2.018	2.010
Ajangiz	227.566	170.083
Arratzu	21.605	32.000
Busturia	17.164	14.329
Ea	22.401	18.642
Elantxobe	15.605	11.191
Ereño	16.663	17.401
Errigoiti	13.033	13.232
Forua	15.539	16.296
Gautegiz Arteaga	14.197	14.395
Gernika	25.008	22.257
Ibarrangelu	23.182	15.018
Kortezubi	17.107	16.259
Mendata	10.732	12.892
Morga	18.505	13.896
Mundaka	30.128	30.157
Murueta	20.904	48.813
Muxika	30.892	33.102
Nabarniz	16.901	21.557
Sukarrieta	36.015	46.705

BPG 2010 – 2018. Iturria: Eustat. 2018 ko datuak


Datu horiek 2010ekoekin alderatuz gero, nabarmentzekoak dira Muruetako jaitsierak (48.813 €-tik 20.904 €-ra), Arratzukoa (32.000 €-tik 21.605 €-ra) eta Sukarrietakoa (46.705 €-tik 36.015 €-ra).

Langabezia tasa

Langabezia-tasa oso desberdina da Mankomunitateko biztanleriaren arabera. Handiena Elantxobekoa da (% 15.4), ondoren Sukarrieta (% 14.7), Forua (% 11) eta Busturia eta Muxika (% 10 baino zertxobait gehiago). Tasarik baxuena Ajangizena da (% 4.2), ondoren Kortezubi eta Mendata daude (% 5.1 eta % 5,8). Generoaren arabera, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa da herri guztietan, Ajangizen (% 5.1 vs % 3.4), Gautebiz Arteagan (% 10 vs % 8.4), Kortezubin (% 5.2 vs % 5), Muruetan (% 7.4 vs % 7.1) eta Muxikan (% 11.1 vs % 9,3) izan ezik. Mundakan tasa berdina da bi generoetan.

Herria	Langabezia Guztira	Langabezia Gizonak	Langabezia Emakumeak
Ajangiz	% 4.2	% 5.1	% 3.4
Arratzu	% 6.3	% 5.3	% 7.4
Busturia	% 10.8	% 10.5	% 11.2
Ea	% 7.5	% 6.0	% 9.8
Elantxobe	% 15.4	% 13.8	% 17.5
Ereño	% 7.8	% 7.1	% 8.6
Errigoiti	% 7.0	% 6.2	% 8.2
Forua	% 11.0	% 9.8	% 12.3
Gautebiz Arteaga	% 9.4	%10.0	% 8.4
Gernika	% 9.7	% 8.5	% 10.8
Ibarrangelu	% 9.8	% 7.4	% 12.7
Kortezubi	% 5.1	% 5.2	% 5.0
Mendata	% 5.8	% 4.6	% 7.2
Morga	% 8.2	% 3.8	% 13.0
Mundaka	% 8.7	% 8.7	% 8.7
Murueta	% 7.3	% 7.4	% 7.1
Muxika	% 10.3	% 11.1	% 9.3
Nabarniz	% 7.1	% 3.6	% 9.9
Sukarrieta	% 14.7	% 12.3	% 17.1

Iturria: Eustat. 2019ko datuak



5. ADIKZIOEN EGOERA

Busturialdeko egoerari buruzko diagnosi egokia egiteko, jakin behar da zer ezagutza dituen eta zer portaera eta kontsumo dituen bertako biztanleria gazteak eta helduak, lehentasunezko ildoak, helburuak eta programak ezartze aldera, gizarteak nahi ez dituen egoerak eta portaerak aldatzen saiatzeko.

Horretarako, inkesta zabal bat egin dugu Mankomunitateko ikastetxeetan ari diren 12 eta 20 urte arteko gazteen artean. Era berean, inkestak izan ditugu eskura, gazteei nahiz helduei egindakoak, Eusko Jaurlaritzak kontsumoaz eta portaeraz egindako azterlanetatik ateratakoak.


KONTSUMOAK ETA PORTAERAK GAZTEEN ARTEAN

Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Heziketa Zikloetan eskolaturiko **1.449 pertsonari** egindako inkesta zabal erabili dugu Planerako. Horrela, bakoitzak betetako galdetegi anonimoen bidez, informazioa eskuratu dugu kontsumoez, pentsamenduez, ezagutzez eta adikzioei buruzko jarreraz, hala legezko eta legez kanpoko drogei dagokienez nola substantziarik gabeko adikzioa eragin dezaketen portaerei dagokienez.

Hona hemen ikastetxe eta ikasle parte-hartzaileak, generoaren arabera:


IKASTETXEA	GIZONA	EMAKUMEA	BESTELAKOA	EZ DU	
				ERANTZUN	GUZTIRA
Barrutialdeko instit.	120	86	-	6	212
GERNIKA BHI	334	368	8	17	727
SAN FIDEL Ikastola	96	123	3	2	224
SEBER ALTUBE	79	106	2	-	187
MERTZEDE IKASTETXEA	37	48	1	-	86
OINARRIZKO	1	12	-	-	13
PRESTAKUNTZA					
TOTALES	667	743	14	25	1.449

Adinak 11 urtetik 20ra artekoak dira. 12 eta 17 urte artekoen ordezkaritza oso esanguratsua da, laginaren % 91 baita. Hona hemen banaketa:



1. Alkohol-kontsumoa

Alkohola probatu dute (gutxienez, baso edo kopa erdia) gazteen % 56,7k. Ohikoagoa da emakumeen artean (% 58,8) gizonen artean baino (% 53,8) eta pertsona ez-bitarren artean baino (ez dira sentitzen, ez gizon, ez emakume) % 50ekin.



Adinaren arabera, 12 urtekoen % 12k probatu dute. Ehunekoa gora doa harik eta adin nagusikoen artean % 96ra iritsi arte. Adinaren eta generoaren arabera, gizonak emakumeak baino gehiago probatzen dute 13 urtera arte. 14 urtetik aurrera, emakumeak argi eta garbi daude gizonen gainetik talde guztietan; nagusiki, hamabost urtera arte, adin horretan baitira alderik handienak. Adin horretatik aurrera, murrizten dira.


Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Batez besteko tasa
11 urte	%8,3	%0	%4,3
12 urte	%15,0	%8,4	%12,0
13 urte	%30,9	%25,5	%28,0
14 urte	%50,0	%68,6	%59,8
15 urte	%68,9	%77,7	%74,0
16 urte	%83,9	%89,4	%86,9
17 urte	%92,2	%94,1	%93,5
18 edo urte +	%83,3	%96,9	%95,9

13 urte eta 8 hilabetetan hasten dira alkohola kontsumitzen. Generoaren arabera, dena den, gizonak emakumeak baino lehenago hasten dira; 13 urte eta 6 hilabetetan, hain zuzen ere. Emakumeak, berriz, 13 urte eta 10 hilabetetan, hau da, lau hilabete geroago. Pertsona ez-bitarrak talde txikia dira, baina haien moda ere 13 urtetan dago.


Nabarmentzekoa da 14 urtetan, hamar pertsonatik zazpi baino gehiagok alkohola probatu dutela; % 72,8k, zehazki. Modarik edo adinik ohikoena, 13 urtetan dago eta

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

oso gutxik probatzen dute alkohola 15 urterekin baino gehiagorekin. Aitzitik, alkohola probatu duten sei pertsonatik batek 12 urte edo gutxiago dituzte (% 15,9).



12 urtetan edo lehenago alkohola edaten hasten diren gazteen % 15,9tik, gizonen tasa % 22,5 da; aldiz, hasiera goiztiarra erdia baino gutxiago da emakumeen artean, tasa % 10,9 baita. Alde horiek eraginik ulertu daiteke ezberdina izatea alkohol-kontsumoaren hasiera.



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Galdetu zaienean. Nork eskaini zizun lehen kontsumoa? Hauxe nabarmendu dute: lagunek (% 71,1); gero, aita edo ama (% 14,6) eta beste senitarteko batzuek (% 6,8).

Nork eskaini zuen?	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Bestelakoak
Aitak/Amak	%14,6	%21,5	%9	%14,3
Anaia-arrebak	%3,3	%4,2	%2,5	%14,3
Lagunek	%71,1	%64,2	%77,6	%28,6
Beste senitarteko batzuek	%6,8	%6,7	%6,8	%28,6
Beste pertsona batzuek	%4,2	%3,3	%4,1	%14,2

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Bi gaztetatik ia batek baino gehixeagok alkohola probatu du (% 56,8), eta probatu duten lautatik ia hiruk **azkenaldian kontsumitu dute**, hots, 12 eta 18 urte arteko gazteen % 41,5ek. Kontsumo hori, alkohol-unitateetan edo alkohol gramoetan neurtuta ohiko kontsumoan (alkohol-unitate 1 10 gramo alkoholaren baliokidea da edo 100 ml-ko baso bat ardotan, garagardo kaña batean edo graduazio

Alkohol-unitateak	Tasa
0,1 - 5	%13,3
5,1 - 10	%10,7
10,1 - 15	%4,8
15,1 - 20	%3,3
> 20	%9,4
Kontsumorik ez	%58,5

altuko alkohol-txupito batean dagoen alkohola), apala da, hots, 0,1 eta 5 unitate arteko kontsumoa, azterturiko pertsonen % 13,3n; dena den, nabarmendu behar da gazteen % 9,4k 20tik gora unitate edo 200 gramo alkohol kontsumitzen dutela egun bakar batean asteburuan, honako taulan nabarmendutako banaketarekin:

Alkohol-unitateak	Gizonak	Emakumeak	Bestelakoak
0,1 - 5	%11,4	%14,7	%0
5,1 - 10	%8,2	%12,8	%21,4
10,1 - 15	%5,2	%4,6	%0
15,1 - 20	%2,2	%4,2	%7,2
> 20	%9,6	%9,4	%0
Kontsumorik ez	%63,3	%54,3	%71,4

Kontsumoak generoaren arabera aztertzean, beheko tarteetan (0.1 unitatetik 10era) argi eta garbi dago kontsumoa nagusi dela emakumeen artean; hurrengo tartean prozesua alderantzikatzen da (10,1etik 15 unitatera); hurrengo tartean berriro aldatzen da (15,1etik 20 unitatera), eta ia-ia berdintzen da 20 unitatetik gorako kontsumoan (**% 9,6% vs % 9.4**). Pertsona ez-bitarrek, berriz, tasarik altuena dute 5etik 10 unitatera bitarteko tartean.

ADINA UNITATEAK	12	13	14	15	16	17	18 edo +
0	%96,3	%88,8	%56,9	%45,2	%29,6	%25,0	%19,2
0,1 - 5	%2,7	%7,1	%22,6	%16,9	%20,7	%13,1	%16,4
5,1 - 10	%0,5	%1,9	%6,5	%11,9	%22,1	%26,2	%16,4
10,1 - 15	--	%0,4	%6,0	%4,5	%9,4	%11,3	%8,2
15,1 - 20	--	%0,7	%1,0	%4,1	%3,7	%8,9	%15,1
> 20	%0,5	%1,1	%7,0	%17,4	%14,5	%15,5	%24,7
GUZTIRA	%3,7	%11,2	%43,1	%54,8	%70,4	%75,0	%80,8

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea


Alkohol-kontsumoa adinaren, generoaren eta kantitatearen (alkohol gramotan) arabera aztertzen badugu, datuek erakusten digute non gertatzen ari diren kontsumorik handienak, honako taula honek bildu bezala:

		0,1-5	5,1-10	10,1-15	15,1-20	> 20
12	G	%3,7	0,9%			0,9%
	E	%1,9				
13	G	%4,9	%3,3	%0,8		%0,8
	E	%8,8	%0,7		%1,5	%1,5
14	G	%14,9	%4,3	%5,3		%8,5
	E	%28,4	%8,8	%6,9	%2,0	%5,9
15	G	%17,5	%9,7	%5,8	%1,0	%14,6
	E	%16,1	%13,4	%3,6	%7,1	%20,5
16	G	%17,2	%18,3	%11,8	%3,2	%14,0
	E	%23,9	%24,8	%7,9	%4,4	%15,0
17	G	%12,5	%20,3	%14,0	%7,8	%18,8
	E	%13,9	%29,7	%9,9	%8,9	%12,9
18 edo +	G	%30,0	%2,5	%5,0	%15,0	%22,5
	E	9,4	%21,9	%12,5	%15,6	%28,1


12 urtetan, nagusiki gizonak kontsumitzen dute alkohola eta, kontsumoak, oro har, txikiak dira. 13 urtetan, emakumeek ia 3 puntutan gaitzen dute gizonen kontsumoa, eta kontsumoak txikiak dira emakumezkoen ia bi herenetan; izan ere, kontsumitzen duten emakumeen % 33k kontsumo altuak dituzte, 15 unitatetik gorakoak.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

14 urtetan gertatzen da igoera handia alkoholaren kontsumoan, % 11,2tik % 43,1era, hau da, ia lau aldiz handiagoa; eta emakumeen artean handiagoa da (% 52) gizonen artean baino (% 33), nahiz eta lau gizonetatik batek alkohol kantitate handiak kontsumitzen dituen; emakumeen artean, berriz, zazpitatik ia batek kontsumitzen du kantitate hori. 15 urtetan, kontsumoak handiagoa izaten jarraitzen du emakumeen artean, gizonen aldean, hots, % 60,7 vs % 48,6, baina alkoholaren kontsumo altua alderantzikatzen da; izan ere, alkohola edaten duten emakumeen % 27,6k edo alkohola edaten duten ia erdiek eta gizonen % 15,6k edo edaten dutenen hirutatik ia batek 15etik gora alkohol-unitate edo 150 gramo alkohol puru baino gehiago kontsumitzen dute egun bakar batean.



Berdin dirau 16 urtetan; emakumeek alkohol-tasa handiagoa dute gizonek baino, % 76 vs % 64,5, eta bi puntu gehiago kontsumorik altuenetan, % 19,4 vs % 17,2. 17 urtetan, joera berberak dirau % 75,3 vs % 73,4, baina adin horretan, kontsumo handiak handiagoak dira gizonetan (% 26,6) emakumeetan (% 21,8) baino.



Adin nagusikoen artean, 18 urtekoen artean edo hortik gorakoen artean, emakumeen nagusitasuna mantentzen da tasetan gizonen aldean, bai alkoholaren kontsumoan bai neurriz gainekoan.

Alkohol-kontsumoak eragindako arriskuak: Test Audit

Audit testa alkohol-kontsumoak eragiten dituen nahasmenduak identifikatzeko galdetegi bat da. Osasunaren Munduko Erakundeak sortu zuen 1989an. Gero, 1992an, eguneratu zen. Alkoholaren kontsumo arriskutsuko edo kaltegarriko patroia duten pertsonak identifikatzeko balio du. Lagungarria izan daiteke zehazteko alkoholaren neurri gabeko kontsumoa izan dela agertu den gaixotasunaren eragilea. Lan esparru egokia da arriskuko edaleei zuzendutako esku-hartzerako, alkohol gutxiago edate aldera edo alkohola edateari uzte aldera; horrela, kontsumo horren ondorio kaltegarriak saihesteko. AUDIT testa ere lagungarria da alkohol-menpekotasuna identifikatzeko, bai eta kontsumo kaltegarriaren berariazko ondorio batzuk ere.

Testak 10 galdera ditu, hau guztia neurtzeko: arriskuko kontsumoa (hiru galdera), mendekotasun-sintomak (hiru galdera) eta alkoholaren kontsumo kaltegarria (lau galdera). Balorazioa 0 eta 40 puntu artekoa da eta, **helduetan**, honela interpretatzen da:

- 0 - 7 puntu: Abstinentsia edo arrisku txikia
- 8 - 15 puntu: Alkoholarekiko arazoaren arrisku ertaina
- 16 - 19 puntu: Alkoholarekiko arazoaren arrisku altua
- 20 edo puntu gehiago: Alkohol-mendekotasunaren bilakaera diagnostikoa


Testa ez da nerabeetan egin helduetan bezain intentsitate handiz; hortaz, lau estadioetako ebaketa-mailak ez daude argi zehaztuta, baina nazioarteko adostasunaren arabera, nerabezaroan **puntuazio txikiagoekin** iristen da maila horietara. Hona hemen aztertutako biztanlerian lortutako datuak, hau da, 12 urtetik 20ra bitarte, gehienbat.

Helduen parametroei jarraikiz, 13 eta 19 urte arteko 7 pertsonak (% 0,5) kontrolatu beharko lirateke, alkohol-mendekotasunean bukatzeko arrisku altua dagoelako, alkohol-kontsumo horiei eusten badiete. Eskala bat jaisten badugu, hau da, 16tik gorako puntuazioa duten pertsonen artean (arrisku pixka bat altua), 22 lagunek, hau da, Busturialdeko Mankomunitateko biztanleria aztertutaren % 1,5ek alkoholarekiko mendekotasun-arriskuak izan ditzake bizitzaren adin oso goiztiarretan. Hala ere, azpimarratu behar da **gure gazteen % 87.9k ez dutela alkohol-kontsumoak eragindako arriskurik** edo arriskua oso txikia da.

	GIZONA	EMAKUMEA	BESTELAKOA	GUZTIRA
0	432 – %64,8	467 – %62,8	10 – %71,4	917 – %63,3
1 - 7	154 – %23,1	192 – %25,9	3 – %21,4	357 – %24,6
8 - 15	69- %10,3	75 – %10,1	0 – %0	153 – %10,6
16 - 19	8 – %1,2	6 – %0,8	1 – %7,2	15 – %1,0
> 19	4 – %0,6	3 – %0,4	0 – %0	7 – %0,5
GUZTIZKOAK	667	743	14	1.449*

2. Tabako-kontsumoa, bapeatzea:

Populazio gaztearen % 33,4k **tabakoa probatu du** (gutxienez, zigarro erdia) eta emakumeen artean da ohikoagoa (% 35,9) gizonen artean baino (% 30,6) eta pertsona ez-bitarren artean baino (% 14,3).




Adinaren arabera, 14 urterekin, hamar gaztetatik hiruk probatu dute tabakoa eta, 15 urterekin, gehiagok, 10etatik 4k baino gehiagok, hain zuzen. Adin horretatik aurrera, ehunekoak gora jarraitzen du, 15 urtetan % 42,9 baita eta, 16 urtetan, berriz, % 56,3, hau da, 13 puntuko igoera. Gero, adin horretatik aurrera, igoera zertxobait jaisten da, harik eta adin nagusikoen artean % 80 ingurukoa izan arte.

Generoaren arabera, emakumeak, oro har, adin berantiarragoetan hasten dira tabakoa kontsumitzen, baina gizonezkoenak baino tasa askoz ere handiagoak dira adin tarte guztietan; horrela, adin nagusikoen tartean, % 87,5era iristen dira, gizonei 13 puntu aterata. Pertsona ez-bitarrek 14 urtetik 16ra probatzen dute, eta tasa altuak dira, baina kopuru absolutua txikia da (2 pertsona).


Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Bestelakoak	Batez besteko tasa
11 urte	%0%	%0	%0	%0
12 urte	%2,8	%1,9	%0	%2,3
13 urte	%9,8	%8,8	%0	%9
14 urte	%24,5	%36,3	%50	%30,2
15 urte	%41,7	%43,8	%0	%42,9
16 urte	%48,4	%61,9	%50	%56,3
17 urte	%62,5	%64,4	%0	%63,7
18+ urte	%74,4	%87,5	%0	%79,5

Inoiz zigarro elektronikorik, nikotinarekin edo gabe, bapeatu ote duten galderari pertsonen % 22,8k erantzun diote baietz. Generoaren arabera, gizonen % 23,5ek bapeatu dute (157 lagun 667tatik), emakumeen % 21,1ek (164 lagun 743tatik) eta pertsona ez-bitarren % 0k (0 lagun 14tatik).




Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Tabakoa kontsumitzen hasteko adina eta alkoholarena ezberdinak dira. Hasteko moda 14-15 urterekin ezartzen da, eta hamabitatik bat 12 urtetan edo hortik behera hasten da, hau da, alkoholaren erdia da.



14 urte eta 4 hilabetetan hasten dira erretzen; dena den, generoaren arabera, gizonak emakumeak baino lehenago hasten dira, 14 urte eta 3 hiletan zehazki; emakumeak, berriz, 14 urte eta 5 hilabetetan hasten dira, hau da, bi hilabete geroago. Pertsona ez-bitarrak talde txikia dira, baina haien moda ere 14-15 urtetan dago.





Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea


12 urtetan edo lehenago, gizonen % 12,3 hasi da tabakoa erretzen (zortzitatik bat) eta emakumeen % 3,8 (hogeita hirutatik bat). 12 urtetik gora, emakumeak gizonen gainetik daude harik eta 16 urtera iritsi arte; gero, kurba paraleloak dituzte.

Tabakoa kontsumitzea:

Azterturiko gazteen % 33,4k probatu du tabakoa. Dena den, erdiak baino gutxiagoak kontsumitu ohi du tabakoa (azken 30 egunean), **% 19k**, alegia. Horietatik, herenak baino gehixeagoak, **% 7,6k egunero** edo ia egunero **erretzen du**. Emakumeen % 19,7k erretzen dute. Gizonen artean, berriz, % 18,1ek.




Pertsona ez-bitarren % 71,1ek erretzen dute. Ez dago generoaren araberako alderik eguneroko kontsumoan gizonen eta emakumeen artean; % 7,6 inguru da. Pertsona ez-bitarrek ez dute egunero erretzen.



Adina	Kontsumoa Gizonak	Kontsumoa Emakumeak	Kontsumoa Ez-bitarra	Batez besteko tasa
12 urte	%1,9	%0,9	%0	%1,4
13 urte	%1,6	%0	%0	%1,1
14 urte	%17	%16,7	%0	%16,6
15 urte	%23,3	%27,7	%0	%26
16 urte	%24,7	%31,9	%50	%29,1
17 urte	%43,8	%37,6	%0	%39,9
18+ urte	%59,4	%54,8	%0	%54,8


Adinaren arabera, 12 urtetan pertsonen % 1,4k erretzen dute. Tasa 13 urtekoen artean jaisten da eta gora jotzen du izugarri % 16,6raino 14 urtekoen artean. 15 urtetan, tasak hamar puntu egiten du gora; 16tan, berriro igotzen da % 29,1eraino, eta beste hamar puntu gora egiten du, 17 urtetan. Tasarik handiena adin nagusikoaren artean dago, % 54,8.

Generoaren arabera, emakume erretzaileen tasa gizonena baino handiagoa da; batez ere, 14 urtetik gora.



3. Kalamu-kontsumoa

Kalamua inoiz probatu dute (gutxienez zigarro erdia) gazteen % 26,8k; ohikoxeagoa da gizonen artean (% 28) emakumeen artean (% 25) baino eta pertsona ez-bitarren artean (% 14,3) baino.



Adinaren arabera, ehun gaztetatik bik 13 urtetan probatu dute kalamua. Adin horretatik gora, jauzi kualitatibo garrantzitsua gertatzen da. Izan ere, 13 urtetan, % 1,9 da eta, aldiz, 14 urtetan, % 18,6, eta 15 urtetan, % 35,6, hau da, igoerak 16,7 puntuak (% 880) eta 17 puntuak (% 91ko igoera) dira. 16 urtetan, % 48,8raino igotzen da eta, adinarekin gora segitzen du adin nagusikoen % 71,2ra arte.


Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Bestelakoak	Batez besteko tasa
11 urte	%0	%0	%0	%0
12 urte	%0,9	%0	%0	%0,5
13 urte	%4,1	%0	%0	%1,9

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

14 urte	%20,2	%16,7	%50	%18,6
15 urte	%37,9	%33	%0	%35,6
16 urte	%47,3	%48,7	%50	%48,8*
17 urte	%65,6	%50,5	%0	%56,5*
18 edo urte +	%70	%71,9	%0	%71,2*

Generoaren arabera, gizonak, oro har, emakumeak baino adin goiztiarragoetan hasten dira kalamua kontsumitzen eta tasak ere altuagoak dira emakumeen artekoak baino, 16 urtera arte. Adin horretatik aurrera, gizonen eta emakumeen probatze-tasak oso antzekoak dira. Pertsona ez-bitarrek 16 urtetan probatzen dute kalamua.


Kalamua kontsumitzen hasteko adina 14 urte eta 8 hilabetetan agertzen da; 15 urtetan jotzen du goia % 32,5ekin. 12 urtetan edo lehenago, % 3,4 hasi da, hau da, alkohola baino hamabost puntu gutxiago eta ia bost puntu gutxiago tabakoa baino.



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Generoaren arabera, kalamu-kontsumoan, gizonen artean 14 urte eta 6 hilabetetan hasten da, eta emakumeetan, berriz, lau hilabete geroago, 14 urte eta 10 hilabetetan, hain zuzen ere. Gizonen artean inor ez da hasi kontsumitzen 11 urte bete baino lehen, eta % 5,5, berriz, 12 urterekin hasten da. Emakumeen artean, % 1 bakarrik hasten da 12 urtetan edo lehenago, eta 15 urtetan, berriz, goia jotzen du nabarmenki % 36,1ekin (hiru neskatatik bat).

Kalamua kontsumitzen hasteko adina, generoaren arabera



Kalamu-kontsumoa:

Azken 30 egunean kalamua kontsumitu duten gazte eta nerabeen tasa **% 15,7** da, hau da, probatutakoen (% 26,8) % 70. Gizonen tasa handiagoa da (% 18,8) emakumeena baino (% 12,7). Pertsona ez-bitarretan, berriz, % 0 da.

Adinaren arabera, kontsumoak probatze-tasen antzeko parametroak ditu; hau da, lehen goren unea 14 urtetan, eta oso tasa handiak adin nagusikoen artean. Oro har, kontsumoa adinarekin handitzen da. Izan ere, 13 urtetan, % 1,5 da eta, 14 urtetan, aldiz, % 12,6. 15 urtetan, halako bi, % 26,5. 16-17 urtetan, tasa mantentzen da, hots, % 26,5., eta gero, berriz igotzen da adin nagusikoen artean (% 39,7).

Adina	Kontsumoa Gizonak	Kontsumoa Emakumeak	Kontsumoa Ez-bitarra	Batez besteko tasa
12 urte	%0,9	%0	%0	%0,5
13 urte	%2,4	%0,7	%0	%1,5
14 urte	%15,9	%9,9	%0	%12,6
15 urte	%30,1	%22,4	%0	%26,5
16 urte	%30,1	%21,2	%0	%25,8
17 urte	%37,5	%19,9	%0	%26,2
18+ urte	%42,5	%37,6	%0	%39,7


Generoaren eta adinaren arabera, emakumeen kontsumo-tasak gizonenak baino askoz ere txikiagoak dira, eta pertsona ez-bitarrek ez dute kontsumorik. Emakumeen artean, kalamu-kontsumoa batez ere 15 urtekoen edo hortik gorakoen artean gertatzen da, eta tasak % 21-22 inguru dira. Gizonetan, berriz, kontsumoa 14 urtetik aurrera hasten da. Adinarekin, igotzen da, % 30,1eraino 16 urtetan eta, % 25 igotzen da, 17 urtetan. Bi generoetan, tasarik handienak adin nagusikoen artean gertatzen dira (% 42,5 vs % 36,6).

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

EGUNAK		1-3	4-5	6-9	10-19	20-30	GUZTIRA
12	G	%0,9	--	--	--	--	--
	E	--	--	--	--	--	--
13	G	%1,6	--	%0,8	--	--	%2,4
	E	--	--	--	--	%0,7	%0,7
14	G	%5,3	%3,2	%5,3	--	%2,1	%15,9
	E	%6,9	%1,0	%1,0	%1,0	--	%9,9
15	G	%12,6	%1,9	%7,8	%1,0	%6,8	%30,1
	E	%9,8	%2,7	%3,6	%3,6	%2,7%	22,4%
16	G	%14,0	%5,4	%6,4	--	%4,3	%30,1
	E	%8,8	%0,9	%5,3	%1,7	%4,4	%21,1
17	G	%14,1	%4,7	%6,2	%1,6	%10,9	%37,5
	E	%11,9	%3,0	--	%3,0	%2,0	%19,9
18 edo +	G	%12,5	%5,0	%2,5	--	%22,5	%42,5
	E	%6,3	%6,3	%3,1	%3,1	%18,8	%37,6


Adinaren arabera eguneroko edo ia eguneroko kontsumoa 15 urtetik aurrera agertzen da argi eta garbi % 5en inguruko tasetan eta nabarmen igotzen da 17 urtetan eta, batez ere, adin nagusikoen artean.

Kalamua egunero kontsumitzea, adinaren arabera



Generoaren arabera, ia ez da kontsumitzen kalamurik egunero edo ia egunero 14 urtera arte. 15 urtetan, gizonetan hazten da gehien; gero, 17 urtetan jaisten da eta asko igotzen da adin nagusikoen artean, bederatzi gizonetatik bik egunero erretzen baitute kalamua. Emakumeetan, eguneroko kalamu-kontsumoa txikia da, adin nagusikoen artean eztanda egiten duen arte, hamaika emakumetatik bik egunero erretzen baitute kalamua.

Kalamua egunero kontsumitzea, generoaren eta adinaren arabera




4. Beste droga batzuen kontsumoa:

Beste droga batzuk probatzea: Galdetu zaie inoiz probatu ote duten honelakorik: speeda, kokaina, haluzinogenoak (LSDa, tripiak), mongiak edo ziza haluzinogenoak, ketamina, estasia, arnastekoak (itsasgarriak, spraiak), heroina. Emaitzak hauek izan dira:

Substantziarik probatuena kokaina, metanfetamina, speeda eta anfetaminak dira; eta gero, haluzinogenoak eta estasia. Gainerako substantziak ez dira % 2ra iristen, baina generoaren arabera, gizonak emakumeen gainetik daude substantzia guztietan; kokaina, speeda eta anfetaminak nabarmenduta. Azpimarratu behar da pertsona ez-bitarrek probatu dituztela gehien aipatu substantziak tasari begira; kopuru absolutua, ordea, txikia da.

Substantzia	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Bestelakoak	Batez besteko tasa
Speeda-anfetak	%3,1 (21)	%2,4(18)	%14,3(2)	%2,9
Metanfetamina	%3,1(21)	%2,7(20)	%14,3(2)	%3,1
GHB	%1,2(8)	%0,3(2)	%7,1(1)	%0,8
LSDa-keta-zizak	%1,9(13)	%1,7(13)	%7,1(1)	%1,9
Kokaina	%4,2(28)	%2,6(19)	%7,1(1)	%3,5
Estasia	%1,9(13)	%1,3(10)	%14,3 (2)	%1,7
Arnastekoak	%1,5(10)	%0,9(7)	%7,1(1)	%1,2
Heroina	%0,9(6)	%0,3(2)	%7,1(1)	%0,6

Kokaina (50 pertsona), metanfetaminak (45 pertsona) eta speeda eta/edo anfetaminak (42 pertsona) probatzea aztertzean, adinari begira ikusten dugu hasierako kontsumoa txikia dela 16 urtera arte. 16 urtetik aurrera, hiru substantzietan igoera hasten da. Tasa maximoak % 20 ingurukoak dira 18 urtekoen edo hortik gorakoen artean speed eta kokainan (% 20,5). Estasia, berriz, % 5,5ek probatu du.



Beste droga batzuk kontsumitzea:


Legez kanpoko beste droga batzuk probatzeak, oro har, tasa txikiak ditu eta substantzia horien kontsumoak ere tasa apalak ditu azken 30 egunetan. Honatx laburbildurik:

Substantzia	Kontsumoa Gizonak	Kontsumoa Emakumeak	Kontsumoa Bestelakoak	Batez besteko tasa
Speeda- anfetak	%0,7 ⁽⁵⁾	0,8% ⁽⁶⁾	0%	0,8% ⁽¹¹⁾
Metanfetamina	%0,9 ⁽⁶⁾	%0,8 ⁽⁶⁾	%0	%0,8 (12)
GHB	%0,1 ⁽¹⁾	%0,3 ⁽²⁾	%0	%0,2 ⁽³⁾
LSDa-keta- zizak	%0,6 ⁽⁴⁾	%0,5 ⁽⁴⁾	%0	%0,6 ⁽⁸⁾
Kokaina	%1,8 ⁽¹²⁾	%0,9 ⁽⁷⁾	%0	%1,3 ⁽¹⁹⁾
Estasia	%0,6 ⁽⁴⁾	%0,7 ⁽⁵⁾	%0	%0,6 ⁽⁹⁾
Arnastekoak	%0,6 ⁽⁴⁾	%0,4 ⁽³⁾	%0	%0,5 ⁽⁷⁾
Heroina	%0,1 ⁽¹⁾	%0,3 ⁽²⁾	%0	%0,2 ⁽³⁾

Bada kontsumorik azken hogeita hamar egunetan substantzia guztietan; batez ere, kokaina-kontsumoa da nabarmentzekoa, 19 pertsona eta % 1,3; gizonak argi dira nagusi (% 1,8) emakumeen aldean (% 0,9); eta gero, anfetaminak, speeda eta metanfetaminak datoz, hots, % 1 baino zertxobait gutxiago, alderik gabe gizon eta emakumeen artean.

Heroina-kontsumoa oso deigarria da, 3 pertsona eta % 0,2, emakumezkoak argi eta garbi nagusi direla. Era berean, nabarmentzekoa da generoaren arabera ez-bitar gisa definitutako pertsonen ez dutela inolako droga-kontsumorik azken hilabeteen.

Probatzearen eta kontsumitzearen arteko erlazioa aztertzen badugu, ikusiko dugu txikia dela ehuneko-tartea heroinan, arnastekoetan eta GHBn; aldiz, metanfetaminek, kokainak eta speedek alde handiagoa dute horiek probatzen dituzten pertsonen eta azken hilabeteen kontsumitu dituztenen artean.




5. IKTen erabilera eta gehiegizko erabilera

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraz galdetu zaie, hala nola txata, sare sozialak, bideojokoak, online jokoak, kirol apustuak, helduentzako web orrialdeak ikustea eta abar. Azken urtean, ikusten dugu % 98,3k txata erabili dutela (Whatsapp, email, msn,...); azken urteetan, % 95.1ek internet erabili du musika deskargatzeko edo entzuteko, eta bideoak, filmak edo serieak ikusteko; % 94.3 sare sozialetara konektatu da (Facebook, Youtube, Twitter, Instagram, LinkedIn, Tuenti, Snapchat,...); % 39,4k internet bidez parte hartu du errealitate birtualeko jokoetan edo bideojokoetan; % 32,9 helduentzako bakarrik diren orrialdeetan sartu da (indarkeriazko eta/edo eduki sexualeko orrialdeak).

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Aldi berean, % 9,5ek dirua jokatu du internetetik kanpo makina txanponjale, kirol apustu, kiniela, loteria, kasino-joko eta gisakoetan, eta % 4,7k dirua jokatu du internet erabiliz, internetetik kanpoko kasu berberetan.



Generoaren arabera, emakumeek gehixeago erabiltzen dituzte sare sozialak eta txata gizonak eta pertsona ez-bitarrek baino. Gainerako jardueretan, gizonak emakumeen eta pertsona ez-bitarren oso gaintetik daude, eta halako bi dira bideojokoaren erabileran.


	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA	BESTELAKOA
Txat	%98,3	%97,8	%99,0	%92,9
Sare sozialak	%94,3	%93,1	%95,7	%78,6
Bideojokoak	%39,4	%52,6	%27,6	%21,4
Helduentzako	%32,9	%53,4	%14,6	%28,6
Dirua	%4,7	%7,6	%1,9	%0
Dirua	%9,5	%14,5	%4,7	%7,1
Internet	%95,1	%94,2	%96,2	%78,6

Gizonek ere jarduera handiagoa dute helduentzako web orrialdeen erabileran (% 53,4) emakumeek (% 14,6) eta ez-bitarrek (% 28,6) baino, bai eta jokoan ere, dela internet bidez (% 7,6), dela internetetik kanpo (% 14,5). Emakumeek tasa


Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

handixeagoak dituzte internet erabileran musika deskargatzeko edo bideoak, filmak eta serieak ikusteko.


Generoaren eta adinaren arabera, ez dago alde handirik txat eta sare sozialen erabileran. Biek ere % 96tik % 100era bitarte erabili dituzte, hala gizonek nola emakumeek, bai gazteek, bai adin nagusikoek. Aldeak erabileraren intentsitatean ikusten dira. Horrela, txataren eguneroko edo ia eguneroko erabilera adinarekin handitzen da, 12 urtetik 17ra. Gero, adin nagusikoen artean jaisten da.




Nabarmendu behar da emakumeek dituztela gizonek baino erabilera-tasa handiagoak adin guztietan, 12 urtekoen artean izan ezik. Antzera gertatzen da sare sozialen erabilerarekin, nabarmen handitzen baita adinarekin; eta 13 eta 15 urte arteko emakumeetan erabilera nabarmen handiagoa dago gizonen artean baino.



Gutiz kontrakoa gertatzen da errealitate birtualeko joken edo internet bidezko bideojoken erabilerarekin, gizonak askoz ere gehiago erabiltzen baitituzte emakumeek baino, hala erabileran nola erabileraren intentsitatean. 15 urtetan izan ezik,





Gizonek erabilera bikoitza egiten dute emakumeen aldean; maiztasunak handiagoak dira 12 eta 14 urtekoen artean, eta adinez nagusiko gizonen artean igotzen da. Gauza bera gertatzen da intentsitatean, halako bi baino gehiago baitira egunero edo ia egunero jokatzen duten gizonak emakumeen aldean.



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Antzekoa gertatzen da internet bidez helduentzako bisitatzen diren orrialdeekin (indarkeria, sexua...). Izan ere, maiztasunari dagokionez, adin guztietan, gizonak bederatzi aldiz gehiago ere badira emakumeak baino. Gauza bera gertatzen da eguneroko edo ia eguneroko erabileran helduentzako orrialdeei dagokienez. Izan ere, gizonak askoz ere gehiago erabiltzen dituzte emakumeak baino, emakumeen maiztasunak oso txikiak baitira edo ez dira haietan sartzen. Gizonak maiztasun handiagoa dute, % 16 eta 20 artean, 15 urtetik 17ra bitarte.



6. Apustuak:


12tik 20 urtera bitarteko 10 pertsonatik batek (% 9,5) apustuak egiten ditu internetetik kanpo (kiniela, loteria, makina txanponjaleak, kirol apustuak.... Gizonak halako bi dira (% 14,5) pertsona ez-bitarrak baino (% 7,1), eta azken horiek emakumeak baino bi aldiz gehiago (% 4,7). Adinaren arabera, ohikoagoak dira adinean gora egin ahala, batez ere.

JOKOA INTERNETIK KANPO				JOKOA INTERNET BIDEZ		
Adina	Gizona	Emakumea	Ez-bitarra	Gizona	Emakumea	Ez-bitarra
12	%8,4	%4,7	%0	%1,9	%1,9	%0
13	%6,4	%5,8	%0	%5,7	%0,7	%0
14	%9,7	%5,9	%50	%11,2	%2,0	%0
15	%10,7	%1,8	%0	%7,8	%2,7	%0
16	%19,4	%1,8	%0	%3,2	%0,9	%0
17	%29,7	%5,0	%0	%12,5	%2,0	%0
18 edo +	%46,1	18,7	%0	%10,0	%9,4	%0


16 urtetik aurrera gizonetan (% 19,4); 17 urtetan, 10 puntu igotzen da (% 29,7), eta 16 puntu, adin nagusikoen artean (% 46,1). Ez da hain ohikoa internet bidez egindako apustu mota berbera. Pertsonen % 4,7k jokatzen dute: horien % 7,6 gizonak dira; % 1,9 emakumeak, eta % 0, pertsona ez-bitarrak. Adina garrantzitsua da, adinarekin eta generoarekin igotzen baita, askoz ere handiagoa gizonetan emakumeetan baino, 12 urtetan eta adin nagusikoetan izan ezik.

7. IKTen erabilera arazotsua.


Interneten erabilera arazotsuan, nabarmentzekoa da inkestatuen % 20,4k maiztasun altua edo oso altua agertzen dutela Internet erabiltzeari ezin uzteari dagokionez,



Konektatuak daudenean. Datu berariazkoagoa da honako hau, hots, pertsonen % 21.1ek maiztasun altua edo oso altua agertzen dute (maiz edo oso maiz) interneten konektatuak jarraitzeari dagokionez, gelditu nahi badute ere.





Generoaren arabera, emakumeen % 24,3k, pertsona ez-bitarren % 21,4k eta gizonen % 15,1ek maiztasun altua edo oso altua dute eta oso zaila egiten zaie konektatuta daudenean Internet erabiltzeari uztea.





Internet erabiltzeak eragin ditzakeen arazoen beste adierazle bat Internetera konektatuta egoteagatik lo gutxiago egitearen maiztasunak eskaintzen du, bai eta zure familiak Internetera konektatuta denbora gutxiago eman beharko zenukeela esaten dizun maiztasunak ere.

Gutxiago lo egiten dute Internetera maiz edo oso maiz konektatuta dagoelako aztertutako biztanleriaren % 19.9k, pertsona ez-bitarren % 21.4k, emakumeen % 24.1ek eta gizonen % 14.8k.






Familiak edo lagunek maiz edo oso maiz Interneten denbora gutxiago eman beharko luketela esaten dieten maiztasuna % 34.1 da; % 29.2 gizonetan, % 38.5 emakumeetan eta % 21.4 pertsona ez-bitarretan.




8. Bullyinga

Azkenik, jakin nahi genuen zer maiztasunarekin sentitu diren internet bidez jazarriak, mehatxatuak edota zer maiztasunarekin usten duten bullying egin dietela. Hona hemen emaitzak: % 80k inoiz ez esan du, eta % 20k, inoiz. Honatx banaketa:




Generoaren arabera, ohikoagoa da pertsona ez-bitarretan, % 14,2k maiz edo oso maiz pairatzen baitute, emakumeek (% 4,8) eta gizonek (% 2,8) baino ia hiru aldiz gehiago da. Honatx banaketa:



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Generoaren eta adinaren arabera, bullyinga maiz edo oso maiz 14 urtetan agertzen da pertsona ez-bitarretan, 17 urtetik aurrera emakumeetan eta, 13 urtetan, gizonetan.



KONTSUMOAK ETA PORTAERAK HELDUEN ARTEAN

Busturialdeko helduen kontsumoari eta portaera adikzio-eragileei buruzko datu zuzenik ez dugunez, gutxi gorabehera horietara hurbildu gara «Euskadi eta Drogak 2017» txostenaren bidez, bai eta Espainiako droga-kontsumoari buruzko "2018ko Adinen Txostenaren" bidez ere.

Tabako-kontsumoa

Tabakoa da Espainiako substantzia psikoaktiborik kontsumituena 15 eta 64 urte arteko herritarren artean. Kontsumo-prebalentziari dagokionez, % 69,7k inoiz kontsumitu du bere bizitzan, % 40,9k azken urtean, eta % 38,8k azken hilabeteetan. Azterlanaren azken hiru edizioetan egonkor dirau % 38 eta % 39 artean. Tabakoaren eguneroko kontsumoaren prebalentziari dagokionez, pertsonen % 34k egunero erre du tabakoa azken hilabeteetan (azken 30 egunean).

Tabako-kontsumoa txikiagoa da Euskadin. 2017an, Euskadiko 15 eta 74 urte arteko herritarren erdiek baino gehixeagok adierazi zuten inoiz probatu dutela tabakoa beren bizitzan (% 51,2); % 25,9k azken 12 hilabeteetan; % 25ek baino zertxobait gutxiagok azken 30 egunean (% 24,6) eta **herritarren % 22,1ek egunero kontsumitzen zuen tabakoa**. Tabako-kontsumoa ez zen homogeneoa herritarren

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

artean eta EAEn baziren alde nabarmenak, sexuaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera.


GUZTIZKOAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Inoiz ez	%83,9	%66,8	%57,1	%51,2	%44,7	%44,2	%34,6	%10,2	%48,8
Inoiz bai bizitzan	%16,1	%33,2	%42,9	%48,8	%55,3	%55,8	%65,4	%44,0	%51,2
Azken 12 hilean	%15,2	%24,2	%33,8	%28,4	%29,5	%29,7	%29,4	%11,1	%25,9
Azken 30 egunean	%15,2	%21,7	%31,5	%27,0	%28,1	%28,2	%28,8	%10,1	%24,6
Egunero	%12,1	%16,1	%27,5	%22,8	%23,4	%26,9	%27,4	%10,1	%22,1
EMAKUMEAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Inoiz ez	%85,3	%68,7	%59,1	%51,1	%41,7	%50,7	%44,7	%73,5	%54,4
Inoiz bai bizitzan	%14,7	%31,3	%40,9	%48,9	%58,3	%49,3	%55,3	%26,5	%45,6
Azken 12 hilean	%14,7	%22,9	%30,5	%23,7	%30,2	%22,5	%23,6	%9,4	%22,5
Azken 30 egunean	%14,7	%20,6	%29,1	%23,0	%28,3	%21,6	%23,1	%7,5	%21,3
Egunero	%11,0	%16,4	%27,6	%16,5	%23,9	%20,0	%21,7	%7,5	%18,7
GIZONAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Inoiz ez	%82,5	%64,9	%55,2	%51,3	%47,8	%38,1	%24,0	%35,9	%43,0
Inoiz bai bizitzan	%17,5	%35,1	%44,8	%48,7	%52,2	%61,9	%76,0	%64,1	%57,0
Azken 12 hilean	%15,6	%25,6	%36,8	%32,9	%28,7	%36,3	%35,4	%13,1	%29,3
Azken 30 egunean	%15,6	%22,8	%33,7	%31,0	%27,8	%34,4	%34,8	%13,1	%28,1
Egunero	%13,3	%15,7	%27,4	%28,9	%22,9	%33,3	%33,4	%13,1	%25,6

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko inkesta, 2017.

Bilakaera-datuek emaitza oso onak agertzen zituzten, 2008an hasitako joerak irauten baitzuen, hau da, tabako-kontsumoaren prebalentzien jaitsierarako joerak. 2017an, izan ere, inkesta serie guztiko prebalentziarik apalenak erregistratu ziren tabako-kontsumoari dagokionez azken 12 hilabeteko, azken 30 eguneko eta eguneroko kontsumoari dagokionez, hala emakumeetan nola gizonetan.



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko inkesta, 2017

Alkohol-kontsumoa

Espainian, 2018an, hamar espainiarretatik bederatzik baino gehiagok alkohola kontsumitu zuten inoiz beren bizitzan 15 eta 64 urte arteko herritarren artean, hau da, % 91,2k. Azken urteko kontsumoari dagokionez, kopurua jaitsi zen, lautik hiruk kontsumitu baitzuten. Azken hilabeteko kontsumoa % 62,7 zen, hau da, 2015eko antzeko mailetan zirauen (% 62,1). Espainiako herritarren % 7,4ak adierazi du alkohola egunero kontsumitzeko ohitura duela.

Adina	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	GUZTIRA
Inoiz ez	%14,9	%8,4	%8,3	%7,2	%7,0	%8,8
Inoiz bizitzan	%85,1	%91,6	%91,7	%92,8	%93,0	%91,2
Azken 12 hilean	%76,0	%78,1	%75,8	%75,0	%71,5	%75,2
Azken 30 egunean	%59,7	%65,0	%64,0	%64,3	%59,2	%62,7
Egunero	%1,3	%3,3	%5,3	%9,6	%16,5	%7,4

Iturria: Alkoholari eta drogei buruzko Inkesta Espainian (adinak) 2017

Bilakaerari dagokionez, ehunekoak 1,9 puntutan egin du behera, aurreko edizioaren datuaren aldean (% 9,3, 2015ean). Beraz, adierazle hori jaisten hasi zen 2011n eta beheranzko joera segitzen zuen. 2017An serie historiko osoko baliorik txikiena izan du. Eguneroko alkohol-kontsumoaren tasarik handiena 45 urtetik gorakoek artean gertatzen da; gizonetan, gehienbat.


Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Euskadin, Adikzioei buruzko Euskadiko Inkestaren arabera, 2017an EAEko 15 eta 14 urte arteko ia biztanle guztiek adierazi zuten (% 93,2) edonolako edari alkoholoduna probatua zuela bizitzan inoiz, hau da, Estatuko inkesta baino 2 puntu gehiago da. % 81,2k azken 12 hilean edan zuten (6 puntu gehiago) eta % 71,5ek azken 30 egunean (8,8 puntu gehiago). Alderik handiena eguneroko kontsumoari dagokio, % 13,1, hau da, Estatuko gainerakoan baino % 77 gehiago. Eguneroko kontsumoa askoz ere handiagoa da gizonetan (% 19,1), emakumeetan baino (% 7).

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017.

Adina	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Inoiz ez	%17,3	%7,0	%4,6	%8,5	%5,3	%4,8	%5,0	%10,2	%6,8
Bizitzan noizbait	%82,7	%93,0	%95,4	%91,5	%94,7	%95,2	%95,0	%89,8	%93,2
Azken 12 hilean	%74,6	%89,5	%88,0	%79,0	%81,9	%86,2	%78,4	%74,0	%81,2
Azken 30 egunean	%55,5	%81,2	%74,7	%70,0	%72,2	%76,2	%70,2	%66,6	%71,5
Egunero	%0,0	%1,4	%2,9	%3,3	%2,9	%11,0	%24,5	%33,4	%13,1

Edari alkoholodunen kontsumoaren adinaren arabera prebalentziek antzeko joera zerakutsaten emakumeetan eta gizonetan, bai azken urteari, bai azken hilabeteari dagokionez; dena den, baziren sexuaren arabera aldeak biztanle adinekoenen artean. Emakumeen artean, adibidez, edari alkoholodunen kontsumoak pixkanaka egiten zuen behera, 50 urtetik aurrera. Gizonetan, berriz, gora egiten zuen, erretiro-adinetik aurrera. Edari alkoholodunen eguneroko kontsumoa adin-talderik helduenetan metatzen zen; gizonetan, nagusiki.



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017.


Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Edari alkoholadunen kontsumo-prebalentzietan, 2006tik 2012ra ikusitako beheranzko joeraren ondotik, 2017an berriz gora egin zuen, hala gizonetan nola emakumeetan, bizitzan zeharreko kontsumoan, azken 12 hilean eta azken 30 egunean. Eguneroko kontsumoa, berriz, inoizko mailarik apalenetan mantentzen zen: emakumeen artean beherantz segitzen zuen eta, gizonen artean, % 20tik behera mantentzen zen azken bi edizioetan.

Kalamu-kontsumoa

Kalamua kontsumo-prebalentziarik handieneko droga da Espainian legez kanpokoen artean, 15 eta 64 urte arteko herritarren artean.

2017an, % 35,2k aitortu zuen kalamua kontsumitu izana inoiz bizitzan. Ehuneko horrek 2013an hasitako goranzko joerari eutsi dio; horrela, 3,7 puntu igo da, 2015ean erregistratutakoaren aldean (% 31,5), eta serieko maximoa izan da.




Azken urtebeteko kontsumoa % 11,0 da eta % 9,1era jaitsi da azken hilabeteari dagokionean. Bi denbora-tarteetarako, ikusten dugu prebalentzia zertxobait hazi dela 2015eko datuaren aldean (% 9,5 eta % 7,3, hurrenez hurren). Herritarren % 2,1ek aitortzen du kalamua eguneroko kontsumitu duela azken hilean; ehuneko horrek egonkor dirau, azken neurketen aldean.

Azken 12 hilabeteko kalamu-kontsumoaren prebalentzia sexuaren eta adinaren arabera aztertutik, ikusten da substantzia horren kontsumoa zabalduagoa dagoela gizonen artean emakumeen artean baino (% 15,4 eta % 6,6, hurrenez hurren). Egoera hori adin tarte guztietan gertatzen da.

2017an, artean ere kalamua zen prebalentziarik handieneko substantzia, legez kanpokoei dagokienez, EAEko herritarren artean. Izan ere, 15 eta 74 urte arteko

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

hamar pertsonatik lauk adierazi zuten bizitzan inoiz kalamua kontsumitu izana; % 8,6k azken urtean eta % 4,9k azken hilean. Kalamua ia egunero kontsumitu dutela esandako herritarrek % 2 baizik ez dira.



Kontsumo-prebalentziak handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino aztertutako adierazle guztietan. Gainera, sexuaren arabera aldeak erlatiboki handitzen dira, kontsumo-prebalentziak gero eta berriagoak izan ahala.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Adinari begira, ikusten da kalamu-kontsumoa gazteen artean dela nagusi; oso txikiak dira egungo kontsumoa eta egunerokoa, 35 urtetik aurrera. Gizonei dagokienez, egungo kontsumoaren puntu gorena (azken 30 egunean) 20 eta 24 urte arteko herritarren artean dago eta, mailaka jaisten da, 25 urtetik aurrera. Emakumeen artean, kontsumo-prebalentziarik handiena ondoko adin tartean dago, 25 eta 29 urtekoen artean, hain zuzen.

GUZTIZKOAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%36,5	%56,1	%62,4	%57,5	%50,3	%40,8	%30,0	%8,4
Azken 12 hilean	%24,0	%26,6	%25,5	%12,0	%7,8	%5,2	%3,7	%0,4
Azken 30 egunean	%9,9	%16,1	%16,1	%7,1	%4,2	%2,4	%2,9	%0,4
Egunero*	%3,6	%4,1	%4,7	%2,9	%2,4	%1,1	%1,8	%0,0

* Eguneroko kontsumoa: azken 30 egunetan alkohola egunero edo ia egunero kontsumitzea (4-6 egun astean).
Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

2017ko datuekin bat, kalamu-kontsumoak gora egin du, 2006tik aurrera izan den beheranzko joera hautsita. Bizitzan zeharreko kontsumoa % 28,3tik % 39ra igo da eta inoizko altuena izan da. Hori hein batean zor zaio gaztaroa kalamurik gabe bizi izan ziren belaunaldiak pixkanaka desagertzeari.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

EMAKUMEAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%30,1	%41,1	%52,7	%51,8	%43,6	%29,7	%21,2	%4,8
Azken 12 hilean	%19,7	%14,7	%19,0	%8,7	%3,7	%3,4	%2,6	%0,0
Azken 30 egunean	%5,9	%7,7	%8,8	%4,5	%2,2	%0,8	%1,0	%0,0
Egunero	%2,1	%0,9	%0,0	%2,2	%1,7	%0,0	%0,0	%0,0
GIZONAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%43,2	%71,6	%71,2	%63,4	%57,0	%51,1	%39,2	%12,6
Azken 12 hilean	%28,4	%38,9	%31,3	%15,3	%11,9	%6,9	%4,9	%0,9
Azken 30 egunean	%13,9	%24,7	%22,7	%9,6	%6,2	%3,9	%4,9	%0,9
Egunero	%5,3	%7,4	%9,0	%3,5	%3,0	%2,1	%3,6	%0,0

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Era berean, azkenaldiko kontsumoa igo da, % 6,3tik % 8,6ra eta, hein txikiagoan, egungo kontsumoa, % 4,3tik % 4,9ra. Aldi berean, eguneroko kontsumoaren prebalentzia egonkor samar mantendu da, 2012an % 1,7koa baitzen, eta, 2017an, % 2koa. Azken kasu horretan, alderen bat nabari da generoaren arabera; izan ere, emakumeen artean aldatu ez bada ere, % 0,7 eta 0,8 artean mantendu baita, gizonetan % 2,4tik % 3,3ra igo da.

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Guztira*	Inoiz	22,9	22,6	28,6	24,4	26,8	27,6	31,7	36,2	33,8	34,2	28,3	39,0
	Azken 12 hil.	6,5	5,5	4,9	-	8,4	12,2	12,0	14,0	12,0	10,4	6,3	8,6
	Azken 30 egun	3,2	3,4	3,8	4,4	5,5	8,9	9,0	11,0	8,7	7,2	4,3	4,9
	Egunero	0,5	0,9	1,9	1,3	1,5	1,9	4,1	3,8	3,9	2,5	1,7	2,0
Emakumeak	Inoiz	11,6	12,0	15,3	15,0	18,0	18,9	20,5	25,6	22,9	25,2	21,0	31,1
	Azken 12 hil.	2,6	1,6	1,4	-	4,1	7,1	5,8	8,6	6,6	6,7	3,6	5,6
	Azken 30 egun	0,7	0,9	1,2	1,8	2,6	4,6	3,8	6,4	3,9	4,0	2,1	2,4
	Egunero	0,1	0,2	0,3	0,4	0,4	0,6	1,0	1,8	1,3	1,0	0,8	0,7
Gizonak	Inoiz	21,6	21,8	29,1	26,0	26,4	29,5	33,5	39,1	38,7	39,5	32,8	47,5
	Azken 12 hil.	5,1	5,4	4,6	-	8,1	12,0	13,0	14,2	13,9	12,2	8,0	11,7
	Azken 30 egun	2,7	3,2	3,4	4,5	5,3	9,3	9,8	11,4	10,8	9,0	5,8	7,4
	Egunero	0,5	0,8	2,1	1,3	1,7	2,4	4,9	4,3	5,0	3,3	2,4	3,3

*Eguneroko kalamu-kontsumoa: azken 30 egunetan kalamua gutxienez astean 4 egunetan kontsumitzea.

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017, eta Demografia Errolda 2017ko urtarilaren 1ean (INE).

Beste droga batzuen kontsumoa

Estatu mailan, hipnolasaigarrien kontsumoa, errezeta medikoarekin edo gabe, substantziarik kontsumituena da, % 20,8k kontsumitu baitu inoiz bizitzan, eta bi puntu igo da 2015etik aurrera (% 18,7). Dena dela, zertxobait jaitsi dira azken urteko kontsumoa (% 11,1), azken hilabetekoa (% 7,5) eta egunerokoa (% 5,9), aurreko urteen aldean. Horrek kontsumoaren prebalentziaren beheranzko joera markatzen du.

Sexuaren arabera, kontsumoa askoz ere zabaldagoa dago emakumeen artean: 15 eta 64 urte arteko emakumeen laurdenak baino gehiagok inoiz kontsumitu du hipnolasaigarriarik bizitzan, errezeta medikoarekin edo gabe (% 25,6) eta, 35 eta 64 urtekoen artean, % 31,1ek.

		15 - 64 urte			15 - 34 urte			35 - 64 urte		
Guztira		Guzti	Gizona	Emak	Guzt	Gizona	Emak	Guzt	Gizona	Emak
	Inoiz	20,8	15,9	25,6	12,4	10,3	14,5	25,0	18,8	31,1
	Azken urtea	11,1	8,1	14,1	6,5	5,3	7,7	13,4	9,6	17,2
	Azken hilabetea	7,5	5,4	9,7	3,4	2,8	4,0	9,6	6,7	12,4
	Egunero	5,9	4,0	7,9	2,4	2,0	2,9	7,7	5,1	10,4

Iturria: OEDA Alkoholari eta Drogei buruzko Espainiako Inkesta, ADINAK, 2017.

Alkoholaren eta tabakoaren ondotik, psikofarmakoak kontsumitzen dira gehien EAEn eta tasak kalamu-kontsumoarenak baino handiagoak dira. Herritarren % 15,4k horrelako substantziak kontsumitu ditu azken 12 hilean, emakumezkoek batez ere; izan ere, emakumeen arteko kontsumoa ia bikoitza da (% 20,1) gizonen aldean (% 11,1). Hona hemen adinaren eta sexuaren araberrako banaketa:

		15 - 74 urte			15 - 34 urte			35 - 64 urte		
		Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea
	Inoiz	28,7	20,8	36,5	14,2	--	--	33,4	--	--
	Azken urtea	15,4	11,0	19,7	6,0	--	--	18,3	--	--
	Azken hilabetea	10,4	8,0	12,9	2,5	--	--	13,0	--	--

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko inkesta, 2017.


Legez kanpoko substantziek askoz ere leku txikiagoa dute Euskadin, herritarren % 1,9k kontsumitu dituztelako. Hona hemen banaketa:

Taula: Legez kanpoko beste substantzia batzuen kontsumoaren prebalentzia nagusiak 2017 (%)

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilean	Azken 30 egunean
Speeda, anfetaminak	8,5	1,0	0,4
MDMA eta antzekoak,	3,6	0,4	0,1
Āzidoā, LSDa	3,2	0,1	0,0
Kokaina hautsa	9,0	1,4	0,4
Basea, crack-a	0,4	0,0	0,0
Heroina	0,6	0,0	0,0
Beste opiazeo batzuk	0,5	0,1	0,1
Arnastekoak	0,4	0,0	0,0
Zia haluzinogenoak	3,5	0,1	0,0
Ketamina	0,6	0,0	0,0
Bestelakoak	0,0	0,0	0,0

Fuente: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017

Kokaina hautsa inoiz kontsumitu du bizitzan % 9k; kopurua % 1,4ra jaisten da azken hamabi hilean eta, % 0,4ra, azken hogeita hamar egunean. Gero, speeda - anfetaminak datoz % 8,5ekin (inoiz), % 1 (azken urtea) eta % 0,4.



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017

(Azken hilabetea) Estasia, zia haluzinogenoak eta LSDa-azidoa % 3,6ra, % 3,5era eta % 3,2ra jaisten dira bizitzan zehar inoiz probatutakoen artean, eta ia kontsumotik desagertzen dira, azken hilabeteko kontsumoari dagokionez.

Kontsumoa sexuaren eta adin taldearen arabera aztertzen badugu (bizitzan inoiz), ikusiko dugu gizonak kontsumitzen dutela kokaina nagusiki (% 13,3), emakumeen % 4,8ren aldean, hau da, ia hiru aldiz gutxiago.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea


Taula: Bizitzan zehar egin den legez kanpoko beste substantzia batzuen kontsumoaren prebalentzia,

sexuaren eta adin taldeen arabera. 2017 (%)

	Sexua		Adin taldeak		GUZTIRA
	Gizona	Emak	15-34	35-74	
Speeda, anfetaminak	12,4	4,6	9,4	8,2	8,5
MDMA eta antzekoak, estasia	5,9	1,4	5,1	3,2	3,6
Azidoa, LSDa	4,9	1,6	1,8	3,7	3,2
Kokaina hautsa	13,3	4,8	9,6	8,9	9,0
Basea, crack-a	0,6	0,2	0,3	0,5	0,4
Heroina	0,8	0,5	0,1	0,8	0,6
Beste opiazeo batzuk	0,5	0,4	0,0	0,6	0,5
Arnastekoak	0,6	0,2	0,2	0,5	0,4
Zia haluzinogenoak	4,9	2,1	5,2	2,9	3,5
Ketamina	1,0	0,2	1,9	0,2	0,6
Bestelakoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017


Legez kanpoko gainerako substantziekin antzekoa gertatzen da. Gizonek, izan ere, emakumeen kontsumoak bikoizten edo hirukoizten dituzte, hala nola estasia, speed, LSD, ketamina edota zia haluzinogenoekin. Opiazeoetan bakarrik (heroina, kasu) hurbiltzen dira kontsumoak, bizitzan zehar inoiz egindako kontsumoen atalean, baina kopuru txikietan, eta gizonek nagusi izaten jarraitzen dutela.



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017

Substantziarik gabeko adikzioak

Euskadin, herritarren % 85,1ek internet erabili ohi du lanegunetan (astelehenetik ostegunera) eta asteburuetan (ostiraletik igandera); gizonak dira zertxobait nagusi (% 86,1) emakumeen gainean (% 84,1); dena den, azken hilabeteeko erabilera pixka bat jaisten da % 83ra, gehienbat ordubetetik beherako denboran.



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017

Internet erabilera arazotsuak (Orman testaren arabera neurtua) erakusten du EAEko herritarren % 4,3k internet-adikzioarekiko arriskua duela eta % 0,7k egungo erabilera arazotsua.

Taula: Biztanleriaren banaketa Internet-erabileraren arrisku-mailari dagokionez, Orman testaren

arabera. 2017 (%)


	Kopurua	Biztanleria guztiaren banaketa	Azken 12 hilabeteetan Internet erabili duten biztanleen banaketa
Ez du internet erabiltzen	247564	14,9	-
Arazorik gabe (0-3)	1330797	80,1	95,0
Arriskuarekin (4-6)	7202	4,3	4,3
Erabilera arazotsua (7-9)	1184	0,7	0,7
Guztira	1662224	100,0	100,0

Oharra: Ormanek 1996an diseinatu eta guk erabili dugun Internet-mendekotasunaren testa 9 itenez osaturiko tresna bat da eta hiru erabiltzaile talde bereiztea ahalbidetzen du, lortutako puntuazioaren arabera.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

2012 eta 2017 artean, internet erabiltzen duten pertsonen ehunekoa handitu da, % 72,9tik (2012) % 85,1era, 2017an. Erabilera arriskutsua edo arazotsua % 3tik egungo % 5era handitu da epealdi berean. Erabilera arriskutsua edo arazotsua handixeagoa da emakumeen artean.




Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017

Azken urtean joko mota desberdinetan jokatu den maiztasunaren arabera, EAEko herritarren % 68,9k loterian, kineletan, primitiboan edota bonolotoan jokatu dute; % 7,4k kirol apustuak egin ditu (kinielak kanpo); % 3 karta-jokoetan aritu da; % 2,8 makina txanponjaleetan eta %, 2 baino gutxiago, kasino-joko, bingo edo bestelakoetan.

Taula: Azken 12 hilabeteetan joko mota desberdinetan jokatu den maiztasuna.(2017)

	Inoiz ez	Astean behin baino gutxiagotan	Astean behin edo gehiagotan	ED/EE
Loteria, kinielak, loteria primitiboa, Karta-jokoak	31,1	44,4	24,3	0,2
Kirol apustuak (kinielak kanpo)	97,0	1,9	1,1	0,1
Makina txanponjaleak	92,6	5,6	1,7	0,1
Kasinoko jokoak (erruleta, Blanck	97,2	2,1	0,6	0,1
Bingoa	98,8	1,1	0,1	0,1
Bestelakoak	98,7	1,1	0,1	0,2
	99,8	0,1	0,1	0,1

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017




Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

gainerako jokoetan, berriz, ehunekoa alderantzizkatzen da, hau da, gazteenen % 3,6k kirol apustuak egiten ditu astean behin gutxienez.

Taula: Azken 12 hilabeteetan joko mota desberdinetan jokatu den maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera. 2017 (%)

	Sexua		Adin taldeak		Guztira
	Gizona	Emakume	15-34	35-74	
Azken 12 hilabeteetan jokatu dute					
Loteria, kinielak, loteria primitiboa, bono-Karta-jokoak	68,1	69,3	41,2	77,5	68,7
Kirol apustuak (kinielak kanpo)	4,1	1,7	4,1	2,5	2,9
Makina txanponjaleak	13,8	0,9	16,4	4,4	7,3
Kasinoko jokoak (erruleta, Blanck	4,8	0,7	4,9	2,0	2,7
Bingoa	2,0	0,3	4,3	0,2	1,2
Bestelakoak	1,0	1,3	2,6	0,7	1,1
	0,3	0,0	0,4	0,1	0,2
Gutxienez astean behin jokatu dute azker□					
Loteria, kinielak, loteria primitiboa, bono-Karta-jokoak	28,8	19,9	8,9	29,2	24,3
Kirol apustuak (kinielak kanpo)	1,5	0,7	0,6	1,2	1,1
Makina txanponjaleak	3,3	0,2	3,6	1,1	1,7
Kasinoko jokoak (erruleta, Blanck	1,2	0,0	1,1	0,4	0,6
Bingoa	0,2	0,0	0,5	0,0	0,1
Bestelakoak	0,0	0,1	0,0	0,1	0,1
	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017



Iturria: Adikzioei buruzko EAEko inkesta, 2017.

Jokoak Eusko Autonomia Erkidegoan 2012tik 2017ra izan duen bilakaerak erakusten du karta-jokoak eta makina txanponjaleak zerbait hazi direla, bai eta kirol apustuen % 750eko igoera handia ere, 2012an % 0,2 baitzen eta, egun, aldiz, % 1,7.

6. DIAGNOSTIKOA ETA BEHARRAK KOMUNITATEAREN ARABERA:

Herritarrek parte hartzeko hamabi talde egin dira, eta Mankomunitateko adikzioen diagnostikoari buruzko iritzi eta irizpide hauek eman dituzte.

1. TALDEA

Hauek dira adikzioei buruzko arazo nagusiak Busturialdean:

1. Pandemia zehar kontsumoen igoera eman dela hautematen da (kirolbet, fortnite).
2. Batez ere alkohola eta edari destilatu gehiegi kontsumitzen dela uste da.
Astegunetan ere bai.
 - Alkohola kontsumitzeko arrazoiak aldatu dira (sozializatu ordeztu mozortzea)
 - Generoa: neskek mozortuta daudela erakusteko beharra dute.
 - Familiak ez dira eredu egokia (terrazetan kontsumitu...).
 - Gazteen artean kontsumoa normalizatuta dago.
 - Kolektibo kaltetuena jende oso gaztea da (14-15 urte). Kontsumitzen hasteko adina jaitsi dela uste dute.
3. Gazteen artean THC oso normalizatuta dago (terrazetan kontsumitzen da) hala ere, helduen artean ere kontsumo handia dago.
4. Speed eta kokaina ere normalizatuta daude.
5. Ez da legea betetzen, ez da Gernikan bakarrik gertatzen.

Arrisku faktoreak:

- Lonjetan kontsumitzea (ezkutuan edatea)
- Familien eredu txarra.
- Eskaintza asko, saltoki handietan erostea (supermerkatuak). Supermerkatu handietan jende ezagunarekin aurkitzeko aukera gutxiago dago. Supermerkatuetako langileek ez dute legea dioena betetzen. Beraz, kontrol falta dago.
- Herri txikietan bizi diren gazteak Gernikara joaten dira hezkuntza-etapa aldatzen dutenean.

Babes faktoreak:

- Ikastetxe txikietan ikastea, Lehen Hezkuntzan.
- Herri txiki batetan bizitzea: "tribuak" jende gaztea babesten du.

Lehentasunezko esku-hartzeak:

1. Gazteria Zerbitzuaren eta ikastetxeen arteko koordinazioa/komunikazioa indartzea.
2. Prebentzio-lanari lehenago ekitea.
3. Familia mailan lan gehiago egitea (ez ikasleekin bakarrik).
4. Adinari egokitutako aisialdi alternatiboa eskaintzea.

Indartu beharreko Udal-eskuhartzeak:

1. Aisia eta denbora librea
2. Sentsibilizazioa/kontzientziakzioa
3. Prebentzio Zerbitzua herritarrengana iristea, baita Udalak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk ere, hala nola Sexare.
4. Kaleko hezkuntza-zerbitzua indartzea.
5. Familiei eta irakasleei zuzendutako esku-hartzeak indartzea

2. TALDEA

Busturialdeko arazo nagusiak adikzioei dagokienez:

1. THC-aren kontsumoa:

- Ikastetxeetako jolasaldietan. Asteburuetan eta astegunetan.
- Mikrotafikoa hainbat ikastetxetako ikasleen artean.
- Drogagatik, prostituzioagatik eta abarreatatik egindako mesede sexualen arrisku erantsia
- Kontsumoaren ondorioak, batez ere maila kognitiboan, oso agerikoak dira.

2. Telefono mugikorraren/teknologiaren gehiegizko erabilera:

- Berandu arte daude konektatuta.
- Sare sozialen erabilera arriskutsua. Argazki oso pribatuak argitaratzen dituzte.

3. Alkoholaren kontsumoa:

- Hautematen ez den arriskua: harreman sexualak norekin mantentzen diren ez jakitea, batez ere nesken aldetik.

4. Poliziaren kontrol egokia hautematen da.

5. Kontsumitzeko lekuak: lokaletan, plazan, Lorategietan, ospitaleko biribilgunean, Astran...

Arrisku faktoreak:

- Familia-harremanak: aita/ama arduragabeak, seme-alaben eta familiaren arteko harreman nulua.
- Ikasleen gabezia emozionalak.
- Eskola-porrota eta aurreko hezkuntza etapetan onartutako etiketak/rolak (irakasleek jarritakoak). Auto-sinesmen mugatua, gaur egun duen jarrera baldintzatzen duena.
- Kide izateak taldean jarrera kaltegarriak izatera bultzatzen du.

Babes faktoreak:

- Ikastetxea bera: espazio segurua bezala dute. Etxean kontatzen ausartzen ez direna ikastetxean kontatzen dute. Irakasleak erreferente bezala.

Lehentasunezko esku-hartzeak

1. Ikastetxeetan prebentzio lana lehenago hastea.
2. Gai horietan erreferentea den profesionala bat eskuragarri izatea ikastetxe bakoitzean.
3. Tailer gehiago ikasleekin.
4. Aurreko hezkuntza etapetan (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan) beste alde batera ez begiratzea.
5. Familiak: tailer gehiago eta haiekin koordinazio handiagoa.

Indartu beharreko Udal-eskuhartzeak:

1. Kaleko hezkuntza lana indartzea.
2. Sexualitateari buruzko lan gehiago: informazioa, tresnak, baliabideak, «Nahi gabeko haurdunaldiak». Sexare zerbitzua indartzea.
3. Beren esperientzia pertsonala kontatzen duten pertsonak zentrorra eramatea.
4. Ikasleei Prebentzio Zerbitzua dutela jakinaraztea.

3. TALDEA

Busturialdeko arazo nagusiak adikzioei dagokienez:

1. Alkohola:

- Kontsumo altua gazteen eta helduen artean. Gehiegizko erabilera gazteen artean.
- Antzera kontsumitzen da emakumeen eta gizonen artean.
- Ez dute ikusten kontsumo handiaren arriskua, hortaz, ez dira kontsultara joaten.
- Kontsumoa asteburuetan.

2. Jokoa:

- Gizonak emakumeek baino gehiago jokatzen dute, bai apustueta eta bai bideo-jokoetan.
- Online jokoa eta sare sozialak areagotzea.
- Joko-eskaintza handitu egin da (apustu etxeak,...).
- Helduetan, kontsulta gehienak THC eta jokoarengatik izaten dira.

3. Hautemandakoa: Aurkeztutako datuak hautematen denarekin alderatuz, baxuak dira.

- Konfinamendu garaian kontsumo mota guztiak igo dira.
- Substantzia desberdinak zein substantziari gabeko adikzioa sor dezaketen eskuragarritasun maila oso altua da.

4. THC:

- Egunero kontsumitzen da.
- Helduetan, kontsulta gehienak THC eta jokoarengatik izaten dira.
- Hautematen ez den arriskua: THC-aren efektuak epe luzera minimizatzen dira.

Arrisku faktoreak:

- Familiak: droga "bigunak" eta "droga gogorrak" mezua. Hizkuntzaren erabilera drogez hitz egiterako orduan.
- Gazteak:
 - Aisialdi alternatiba falta dago.
 - Ez dira beraien beharrak zeintzuk diren entzuten.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- Nerabezaroaren ezaugarriak.
- Gizartearen espektatibekin bete beharra
- Alkohola eta THC-aren normalizazioa.
- Pandemiak sortutako ziurgabetasuna.
- Lonjetako kontsumoa.
- Jokoari buruzko publizitatea.
- Generoa: emakumeen kontsumoaren estigmatizazioa.
- Legea: zigorgabetasuna dute.
- Internet:
 - Berehalakotasuna.
 - Mugarik gabeko mundua.
- Bizi garen gizarte-eredua.

Babes faktoreak:

- Gazteek zer esan behar duten entzutea eta jasotzea.
- Kirola.
- Familiekin lan egitea.

Lehentasunezko esku-hartzeak:

1. Aisialdirako aukera osasungarriak.
2. Familiak: familiekin egindako lana indartzea eta behar handiena duten familietara iristea.
3. Erkidegoaren esku-hartzeak alkohol-kontsumoa desnormalizatzeko.
4. Ingurunea: parkeak zaintzea, tabernaz inguratuta daude.
5. Mikrotrapitxeoari ekitea.
6. Zeharkako tailerrak.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

1. Udalak lantzen duenaren ikusgarritasuna indartzea
2. Familia Eskoletan parte hartzeko estrategiak.
3. Elkartetarea: oso garrantzitsua da gazteentzat, eta ez kirolentzat bakarrik, baita elkartasun-mailan ere.

4.TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

1. Alkohola:

- Gazteen zein helduen artean gehien kontsumitzen dena.
- Familien eredu txarra kontsumoari dagokionez. Ez dute ikusten beraien ereduarekin kontsumoa errazten ari direnei. Askok etxean ere kontsumitzen dute.
- Edateko modua aldatu da, mozkortzeko helburuarekin.
- Herri txikietatik Gernikara joaten dira alkohola edatera.

2. Teknologia:

- Telefonoari lotuta daude.
- Denboraren nozioa galtzen dute telefonoarekin (sare sozialak).
- Gizarte bezala ez gara kontziente apustuen erabilerak gora egin duela.

3. THC:

- Geroz eta gehiago kontsumitzen da.

4. Kontsumoak: Hezkuntza erreformak lehenago kontsumitzen hastea erraztu du.

Arrisku faktoreak:

- Sareko lana falta da
- Alkoholaren onarpen soziala
- Bakardade sentimendua nerabeen artean
- Aisialdiko eskaintza txikia
- Hezkuntza eredu desagokiak: oso eredu autoritariorik oso permisibora (kontrolik eza) pasatzen da. Bizimodua aldatu da.
- Ez gara koherenteak esan eta egiten dugunarekin.

Babes faktoreak

- Sare lana
- Familientzako prestakuntzak, pediatriatik eta emaginetatik.
- Aisialdiko eta denbora libre zabaleko eskaintza.
- Eredu positiboa familietatik/gizartetik.

Lehentasunezko esku-hartzeak

1. Familiak: Familientzako eskolak indartzea eta parte-hartzea sustatzea.
2. Tailer gehiago familia eta irakasleentzako.
3. Ai-Laket-en testing gehiago.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

1. Hezkuntza eragileekin tailerrak.
2. Prebentzio-lanarekin lehenago hastea
3. Aisialdiko eskaintza handiagoa (14 urtetik aurrera). Batez ere asteburuetan.

5. TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokionez:

1. Alkohola
 - Gehien kontsumitzen dena edari destilatuak eta kopuru handian.
 - Asteburuetan kontsumitzen da, batez ere.
 - Alkohola ez da substantzia adiktibotzat hartzen.
 - Emakumeek alkohol gehiago kontsumitzen dute.
 - Alkohol-kontsumoarekin lotutako aisia
2. THC:
 - Gizonek emakumeek baino gehiago kontsumitzen dute.
3. Kontsumoa:
 - Lonjetan.
 - Pandemian zehar, kontsumitu ahal izateko antolatu dira.
4. Teknologiak: mugikorren gehiegizko estimulazioa.

Arrisku faktoreak

- Nerabezaroaren ezaugarriak
- Alderdi psikologikoak: autoestimua baxua...

Babes faktoreak

- Gaitasun emozionalak (autoestimua).
- Familia-eredu positiboak
- Aisialdi aktiboa
- Nerabeei ahotsa ematea eta nerabeekiko komunikazioa hobetzea.
- Sexualitatetik hurbiltzea
- Auto-zaintza osasungarriari buruzko lana: nutrizioa...

Lehentasunezko esku-hartzeak

1. Tailerrak: alderdi sozio-emozionala gehiago lantzea, eta ez hainbeste substantzia.
2. Aisialdirako aukerak areagotzea. Adibidea: udalekuak egiteko adina luzatzea.
3. Lan gehiago familiekin (tailerrak).

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

1. Aisialdiko eskaintza handitzea.
2. Zerbitzua ikusaraztea.

6.TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

1. Zonaldeko gazteen artean tabakoaren kontsumoa murriztu da, baina kalamuaren igo da (14-18 urte) eta kokainarena (18-25 urte).
2. Pandemia ostean alkohol kontsumo gehiegi.
 - Batez ere asteburuetan eta oporretan kontsumitzen da.
 - Gazteak ez dira kontziente drogen kontsumoak ekar dezakeen arriskuaz.
3. Jokabide-adikzioak izugarri areagotu dira eta gero eta adin goiztiarriagoetan hasten dira (12 urtetik aurrera).
 - Kirol apustuak egiten dira, batez ere futbolarekin lotutako apustuak 15-16 urtetik Aurrera.
4. Generoaren araberako desberdintasunak:
 - Emakumeak gizonak baino lehenago hasten dira drogak kontsumitzen, adinez nagusiak diren pertsonekin harremanetan daudelako eta taldean presio handiagoa jasaten dutelako (onartzeko premia handiagoa).
 - Gizonek emakumeek baino kalamu eta alkohol gehiago kontsumitzen dute.
 - Emakumeek maizago erabiltzen dituzte sare sozialak eta online erosketa gehiago egiten dituzte gizonekin alderatuta.
 - Gizonek emakumeek baino pornografia gehiago kontsumitzen dute.
5. Mapeoa:
 - Gehienek lokaletan kontsumitzen dute, baina hauek eta taberna asko ixtearen ondorioz gazteek espazio publikoan botiloia egitea eragin du, adibidez: Pasileku, Auditorio, ur biltegia, Seber Altube Ikastola inguruan,...

Arrisku faktoreak:

- Drogen eskuragarritasun handia. Legez kanpokoan kasuan, adingabeen arteko droga-trafikoa gero eta ohikoagoa da, eta horrek haien arteko salerosketa errazten du.
- “Influencer” figurak nerabeen errealitatearen pertzepzioa desitxuratzen du.
- Familiaren eredu gain-babesleak, mugarik ezartzen ez duenak, emozioen kudeaketa desegokitik eratorritako portaera desegokitzailak bultzatzen ditu.

Landu beharreko lehentasunezko alderdiak:

1. Trebetasun sozioemozionalak txiki-txikitatik lantzea.
2. Gizartea sentsibilizatzea adikzioen prebentzioak duen garrantziaz, eta horrela, arazo horri dagokion estigmatizazio soziala desegitea.
3. Adikzioen prebentzioari dagokionez, gizarte-erakundeen eta taldeen arteko koordinazioa indartzea.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

- Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera adikzioen prebentzioa hastea.
- Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Zerbitzua ikusaraztea.
- Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea aisialdiko eta denbora libreko jarduerekin lotutako erabakiak hartzerakoan.

7. TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

Alkohola da hasierako droga eta biztanleria osoak gehien kontsumitzen duena. Bere kontsumoa normalizatuta dago, beraz, jendea ez da gainerako substantziekin bezain beste arduratzen. Hala ere, gainerako drogak (tabakoa, kalamua, speed-a, kokaina, etab.) kontsumitzeko ateak irekitzen ditu. Ez da uste drogen kontsumoa areagotu denik, baina kontsumitzeak dakartzan arriskuen pertzepzioa desagertu egin da.

Inoiz baino informazio gehiago dute eskura, baina badirudi lehen pertsonan bizi arte ez dutela uste ondorio negatiboak jasango dituztenik. Hala ere, azken urteetan gazteen artean drogen kontsumoak eragindako nahasmendu mentalak areagotu direla hautematen da. Jokabide adikzioei dagokienez, mugikorraren gehiegizko

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

erabilera desagokia nagusitzen da geroz eta adin txikiagoetan (10-11 urte) baita ere, ludopatiaren hazkundera nerabeen artean.

Genero-desberdintasunei dagokienez, emakumeek drogak gizonek baino pixka bat beranduago probatzen dituzten arren, kontsumoa antzekoa dela uste da, alkoholaren kasuan izan ezik; izan ere, uste da emakumeek kantitate handiagoak kontsumitzen dituztela eta, ondorioz, gizonek baino intoxikazio etiliko gehiago izaten dituztela. Substantziarik gabeko adikzioen kasuan, uste da gizonek arazo handiagoak dituztela apustuekin eta jokoarekin, eta emakumeek sare sozialekin, besteek beren auto-irudiari buruz duten iritziari emandako garrantziaren ondorioz (autoestimu txikia). Drogak kontsumitzeko modua aldatu egin da, gaur egun gazteak ez dira lehen bezala ezkututzen. Astegunetan tabakoa eta kalamua kontsumitzen dute ikastetxe inguruan eta asteburuetan botiloia egiten dute bide publikoan (Mercadona, Auditorioa, etab.). Alkohola, tabakoa eta kalamua ez diren beste droga batzuk kontsumitzen dituztenean, pribatutasun handiagoko lekuetan eta lokaletan kontsumitzen dituzte.

Arrisku faktoreak

- Adinari edo bizi etapari lotutako baliabide pertsonal ezak, nerabezaroan gertatzen den bezala, pertsona zaurgarriagoa bihurtzen du kanpoko eraginen aurrean, batez ere berdinkideen aurrean. Edo nortasun-krisi bat bizi dugunean, bizitzan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean, ondoeza sortzen duten egoera horiei behar bezala nola aurre egin ez dakigunean, pertsonak ihesbide gisa kontsumitzea aukeratu dezake.
- Gure gizartean zenbait drogaren (tabakoa, alkohola) eta/edo zenbait ekintzaren (mugikorraren erabilera, kirol-apustuak, ausazko jokoak) kontsumoa normalizatzea. Gainera, gazteen artean "gamelua"ren irudia eta droga-trafikoa normalizatu dira udalerri mailan, beraz, gero eta ohikoagoa da horrelako legez kanpoko ekintzak egitea eta horrek, aldi berean, dirua ematen die mendekotasuna ordaintzeko.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- Adingabeek eskuragarri dituzte apustua egitea, mugikorrak erabiltzea, bideo-jokoak eta drogak kontsumitzea. Ez zaizkie gustatzen udalak edo beste erakunde publiko batzuek eskaintzen dizkieten aisialdiko eta denbora libreko alternatibak.
- Familia-ereduak, zehazki erreferentziazko pertsona helduen portaerak, eragin nabarmena izango du haien seme-alaben jokabidean, positiboa edo negatiboa izan. Berdinen taldeak eragina izango du nerabearen erabakietan, beraz, arriskuaren edo babesaren faktore gisa jardun dezake.

Lehentasunezko alderdiak:

1. Aisialdiko eta denbora libreko proposamena zabaltzea, gazteei aukera horiek izatea gustatuko litzaiekeen galdetuz.
2. Ikastetxeetako esku-hartzea indartzea.
3. Familiei adikzioen prebentzioari buruzko prestakuntza eskaintzea, nahiz eta jakin joaten diren familiak direla seme-alaben hezkuntzarekin konpromiso handiena dutenak, baina saiatu behar dugu beste familia-profil batera iristen.
4. Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arteko hezkuntza-tailerrak eskaintzea adikzioen prebentzioari buruz.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

- Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak egiten duen lana eta funtzioa ikusaraztea eta ezagutaraztea, arazoak gainezka egiten dienean eta baliabide gehiagorik ez dutenean bakarrik joaten baita jendea zerbitzu horretara.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta udalen arteko komunikazioa hobetzea.
- Drogen kontsumoa prebenitzeko esku-hartzeak egitea egokitzen jotzen den jai edo egun seinalatuetan. Adingabeen kasuan, kalean bertan informazioa eta laguntza eskaintzea litzateke onena, hala eskatzen dutenei. Eta 18 urtetik gorakoek kasuan, testing edo alkoholemia zerbitzua eskaintzea.

- Gazteen lokaletan prebentzioa egitea, baina ez dakigu zein den erabili beharreko metodologia.

8.TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

1. Alkohola da, zalantzarik gabe, gizartean gehien kontsumitzen den droga.
 - Ez da lehen baino alkohol gehiago kontsumitzen, kontsumitzeko modua aldatu egin da. Orain, gazteek destilatutako edariak kontsumitzen dituzte batez ere, eta horrek kontrolik eza eta gaindosi etilikoak areagotzen ditu.
 - Hasteko Aidna aurreratu da.
 - Alkoholaren kontsumoa asteburuetan egiten da (botiloak)
2. Tabako eta kalamua kontsumoa mantentzen da:
 - Egunero kontsumitzen dira.
 - Kalamuaren norbere-laborantza eta mikro-trafikoak areagotu da ikasleen artean, eta horrek eskuragarritasun ekonomikoa eta logistikoa dakar. Gazteen artean oso onartuta dagoen legez kanpoko jardura da eta ez dira kontziente horrek izan dezakeen ondorio legalekin.
3. Sare sozialen gehiegizko erabilera:
 - Jazarpen-tresna gisa erabiltzen dira.
 - Lo-orduak murrizten dituzte eta, ondorioz, gazteenen errendimenduan eragiten dute.
4. Genero-desberdintasunak:
 - Ez dago genero-alderik tabakoaren kontsumoan.
 - Emakumeek gizek baino alkohol gehiago kontsumitzen dute.
 - Gizek emakumeek baino kalamu gehiago kontsumitzen dute.

5. Mapeoa:

- Gehienek lokaletan kontsumitzen dute, baina horien itxieraren ondorioz, drogak kontsumitzen dituzte helduen begiradatik babes ditzaketen leku publikoetan, La Vegan esaterako, eta asteburuetan Auditorioan. Heldu askok beren txoko partikularrak seme-alabei uzten dizkiete pribatutasun handiagoa izan dezaten.

Arrisku faktoreak:

- Lokalak kontsumitzeko ohiko lekua direnez, taldearen presioa areagotzen duten funtsezko elementuak dira.
- Drogen eskuragarritasun handia, oro har, baina kalamua errazago eskura dezakete tabakoa edo alkohola baino.
- Nerabezaroa gatazkei aurre egiteko eta frustrazioa kudeatzeko ezintasunak ezaugarritzen du, eta horrek askotan erabaki desegokiak hartzea eragiten du, hala nola drogen gehiegizko kontsumoa. Ikasleak eduki objektiboan ahaldundu ditugu, baina ez hezkuntza emozionalean.
- Gizarteak alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa onartzea.
- Familia-eredua: mugarik gabeko hezkuntzak, helduen beldurrek eta abarrek eragina izango dute nerabearen autonomian eta erabakiak hartzeko gaitasunean.

Lehentasunezko alderdia:

1. Gizarte-eragile guztiek parte hartu behar dute adikzioen hezkuntzan, hezkuntza emozionalaren bidez.
2. Hezkuntza emozionala txertatzea haurrak eta gazteak mugitzen diren eremuetan.
3. Familiei beren seme-alaben garapen emozionalaren berri ematea, Familien Eskolen bidez (Lehen Hezkuntzako familiei zuzendutakoak bereziki indartzea) eta adikzioen prebentzioari lotutako hainbat gairi buruzko hitzaldiak emanez.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak:

Hezkuntzan:

- Irakasleak eta ikasleak eremu emozionalean orientatu eta lagunduko dituzten profesionalen presentzia behar da.
- Inguruko ikastetxeen arteko koordinazioa eta talde lana ezinbestekoa da esku-hartze eraginkorra egin ahal izateko.
- FAMILIA-ESKOLA-IKASLEEN arteko koordinazioa indartzea, sarean lan egin ahal izateko.

Prebentzio zerbitzuan:

- Zerbitzua ikusaraztea; izan ere, familiak ikastetxera joaten dira lehenik, eta horiek bitartekari gisa jarduten dute familiaren eta prebentzio zerbitzuaren artean.
- Aisialdian:
- Gazteei zuzendutako aisialdiko jardueren eskaintza zabaltzea.
- Kaleko hezitzaile bat izatea, gazteak mugitzen diren testuinguruetan zuzenean esku hartuko duena eta haien eskaerak zuzenean ezagutuko dituen.
- Berdinen arteko tutoretzak egitea, hau da, gazteen artean prebentzio lana egitea.

9.TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

Alkohola da oraindik ere hasierako droga eta gehien kontsumitzen dena, gizarteak ez baitu drogatzat ere hartzen, eta are gutxiago arriskutsutzat. Taldearen iritziz, gaur egungo gazte asko lehenago hasten dira kalamua kontsumitzen tabakoa kontsumitzen baino, bi arrazoi nagusirengatik: auto-laborantzaaren onarpena eta normalizazioagatik, eta bestetik, eskuragarritasunagatik eta sal-erosketagatik. Beste substantzia batzuei dagokionez, heroina bueltatu dela aipatzen dute, ez dute arrisku askorik hautematen neurri batean gazteak ez direlako kontziente garai batean inguruan gertatu zenaz.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Substantziarik gabeko adikzioei dagokienez, onartzen dute teknologia berrien erabilera gehiegizkoa dela adin eta eremu guztietan; beraz, zaila da jakitea non dagoen patologikoaren eta ez-patologikoaren arteko muga, eta uste dute hor dagoela arazorik handiena. Kirol-apustuen munduan gaur egun hasten den goiztiartasuna ere aipatzen dute.

Genero-desberdintasunei dagokienez, gizonak bideo-jokoak eta pornografia gehiago erabiltzen dituztela uste dute. Hala ere, drogen kontsumoa gizonen eta emakumeen artean antzekoa dela uste dute, kalamua izan ezik, beraien ustez gizonak baitira gehien kontsumitzen dutenak. Substantziarik gabeko adikzioetan, pornografia erabiltzeko maiztasunean bakarrik nabarmentzen dira genero-desberdintasun esanguratsuak, eta gizonak kontsumitzen dute gehienbat.

Busturian (Axpe, San Cristobal), Muruetan, Foruan eta Mundakan teknologia berrien erabilera eta substantzien kontsumoa inguruko udalerrien antzekoa da. Astegunetan gazteek tabakoa eta kalamua kontsumitzen dute eta asteburuetan kalean botiloia egiten dute, zehazki: Busturian (Axpe, San Kristobal) futbol-zelaian, San Antonio hondartzan eta Axpeko elizaren azpian; Mundakan Santa Katalinan.

Arrisku faktoreak:

- Drogen eskuragarritasuna handitu egin da; batzuek uste dute prezioaren jaitsieragatik dela, eta beste batzuek gaur egungo gazteek diru gehiago dutelako. Era berean, uste dute oso erraza dela jokoa eta apustuak eskuratzea, makina horiek tabernetan duten presentzia handitzeagatik, publizitate-bonbardaketa etengabeagatik eta apustu-etxeetan edo online orrialdeetan adingabeek duten kontrol eskasagatik.
- Alkoholizatutako gizarte batean hazi eta bizitzea, alkoholaren ohiko kontsumoa onartuta eta barneratuta duena, bere kulturaren zati gisa.
- Familia-ereduak eragin zuzena du haurren etorkizuneko jokabideetan, eta irmoki azpimarratzen dute hezteko zeregina ez dagokiela soilik ikastetxei. Beren iritziz, gaur egun nagusi den familia-eredua gehiegizko

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

babesa/permisiboa da. Eredu horrek ez du mugarik, eta ondorioz, zailtasunak sortzen ditu gazteenek erabakiak hartzeko eta emozioak kudeatzeko orduan.

- Aisialdiko momentuetan, eskolaz kanpoko/kirol jardueretan parte ez hartzea arrisku faktorea bihurtu daiteke, osasungarriak ez diren jardueretan inbertitzeko aukera handiagoa baitute. Horren arabera, 16-17 urte bitarteko gazte askok eskolaz kanpoko jarduera horiek albo batera uzten dituzte, eta drogen kontsumoa nabarmen handitzen da. Egoera hori emakumeen kasuan gehiago gertatzen dela uste dute.
- Gazteen lokal bateko kide izateak kontsumitzeko eta legez kanpoko jarduerak egiteko probabilitatea handitzen du, helduen begiradatik urrun dagoen espazio pribatu bat eskaintzen baitie.

Lehentasunez lantzeko alderdiak:

1. Familiei prestakuntza eskaintzea eta familiek kezkak trukatzeko, elkarri laguntzeko eta seme-alabak haztearekin eta heztearekin zerikusia duten alderdiei buruz hausnartzeko espazioak antolatzea.
2. Gizarte-trebetasunei eta emozioen kudeaketari buruzko tailerrak ematea adin goiztiarretan. Lehen Hezkuntzako 2-3 mailatik aurrera prebentzio-lanarekin hastea.

Indartu beharreko udal-esku-hartzeak

- Familiari zuzendutako prestakuntzak. Beharrezkoa da profesional baten aholkularitza adikzioen prebentzioan.
- Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak egiten duen lana eta funtzioa ikusaraztea eta ezagutaraztea, arazoak gainezka egiten dienean eta baliabide gehiagorik ez dutenean bakarrik joaten baita jendea zerbitzu horretara.
- Gizarte-eragileen arteko koordinazioa indartzea, sareko lana sustatzeko.

10.TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

1. Alkohola:

- Gehiegizko erabilera gazteen artean.
- Ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.
- Kontsumoa asteburuetan.

2. THC:

- Eguneroko kontsumoa.
- Helduen aldetik.
- Ez dira hautematen kalamua kontsumitzearen arriskuak.

3. Jokoa eta apustuak:

- Gizonek gehiago kontsumitzen dute
- Online jokoa eta sare sozialak areagotzea.
- Joko eskaintzak gora egin du (apustu etxeak,...).

Arrisku faktoreak:

- Familiak emandako adibide desegokiak
- Gazteen gabezia emozionalak.
- Nerabezaroaren berezko ezaugarriak
- Substantzien normalizazioa, batez ere alkoholarena
- Lonjetako kontsumoa
- Aisialdirako aukerarik eza

Lehentasunez lantzeko alderdiak:

1. Aisialdirako aukera osasungarriak.
2. Familientzako hezkuntza sustatzea
3. Alkohol-kontsumoaren arrisku-pertzepzioa handitzera bideratutako esku-hartze komunitarioak.
4. Alderdi emozionalak txikitatik lantzen dituzten zeharkako tailerrak.

Indartu beharreko Udal esku-hartzeak

- Hezkuntza-tailerrak lehenago hasia.
- Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Zerbitzua ikusaraztea.
- Familiei zuzendutako prestakuntzak ikusaraztea.
- Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea eta aisialdi osasungarriko aukerak areagotzea.

11.Taldea

Arazo nagusiak Busturialdean adikzioei dagokienez

1. THC-aren kontsumoa handitzea:

- Bai astegunetan, bai asteburuetan
- Kontsumoari lotutako ondorioak minimizatzen dira.

2. Gazteen artean telefono mugikorraren/teknologiaren gehiegizko erabilera:

- Erabilera desegokia eta gehiegizkoa

3. Alkoholaren kontsumoa:

- Kontsumo normalizatua gazteen eta helduen artean

Arrisku faktoreak:

- Nerabezaroari lotutako ezaugarriak, hala nola baliabide emozional eza eta talde bateko kide izateko beharra.
- Hainbat substantziaren kontsumoa normalizatzea, bereziki alkoholarena eta kalamuarena, bai eta teknologia batzuen erabilera ere (sare sozialak, kirol-apustuak, bideo-jokoen erabilera).
- Eskuragarritasuna eta sarbide erraza
- Aisialdirako aukerarik eza
- Familiaren eta gizartearen eredu desegokiak

Lehentasunez lantzeko alderdiak:

1. Txikitatik gaitasun emozionalak sustatzea.
2. Familiei zuzendutako prestakuntzak indartzea, haien hezkuntza ereduen bidez prebentzio lanean duten garrantzia azpimarratuz.
3. Adikzioei heltzeko beharrari buruzko gizarte kontzientzia handitzea
4. Gizarte erakundeen eta taldeen arteko koordinazioa indartzea, adikzioen prebentzioari dagokionez.

Indartu beharreko udal esku-hartzeak

- Gizarte eta prebentzio eragileen arteko komunikazioa hobetzea
- Arriskuak murrizteko ekintza komunitarioak areagotzea, bereziki gazteen artean, gazteen lonjetan lan eginez.
- Adikzioen Prebentzio Zerbitzua ikusaraztea.
- Familien parte-hartzea areagotzea hezkuntza-tailerretan.

12. TALDEA

Arazo nagusiak Busturialdean adkzioei dagokionez

1. Alkohola
 - Alkohola da herritarrek gehien kontsumitzen duten droga.
 - Droga eskuragarriena da.
 - Ez dituzte arriskuak kontsumoan ikusten.
 - Gaur egun, gazteek graduazio altuko alkohola kontsumitzen dute.
 - Busturialdea herri txikiz osatuta dagoenez, udan astebururo jaiak izaten dira, eta uste dugu Zornotzan baino alkohol gehiago kontsumitzen dela.
2. Sare sozialen gehiegizko erabilera 11 urtetik gorako biztanleria osoan.
 - Internet oso eskuragarria denez, ludopatia eta erosketa konpulsiboen kasuak ugaritu egin dira.
 - Eragin negatiboa dute gizarte-harremanetan.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- Gazteek denbora libre gehiena IKTen erabileran ematen dute, eta ez da oso osasungarria.
- Helduek ausazko joko gehiago kontsumitzen dituzte, hala nola loteria edo bingoa, eta gazteek kirol-apustu gehiago.

3. Genero desberdintasunak:

- Emakumeek gizonak baino alkohol eta tabako gehiago kontsumitzen dute.
- Gizonak emakumeek baino askoz apustu gehiago egiten dituzte.
- Emakumeek online erosketak gehiago egiten dituzte.

4. Mapeoa:

- Gazteen asmoa agintariengandik ezkatutzea da, baina gero beraien kontsumoa sareetan erakustea.
- Botiloia egiten dute asteburuetan: Seber Altuberen inguruan, Gernikako Institutuaren geralekuan, La Merced ikastetxearen atzean, Auditorioan.

Arrisku faktoreak:

- Gizarteak alkohol-kontsumoa onartzea.
- Aisialdirako alternatiba erakargarririk ez izatea, alkohola edatea baino gehiago.
- Lokalek drogen kontsumoa errazten dute eta aire zabaleko aisia murrizten dute.
- Gazteek diru gehiago dute.
- Hezkuntza-eredu nagusia permisiboa da, mugarik jartzen ez diena.
- Publizitatea.

Lehentasunez lantzeko alderdiak:

1. Familien formakuntza.

Indartu beharreko udal esku-hartzeak

- Ikastetxeetan ematen diren prebentzio-tailerretako edukia eta materiala berritzea, eta horiek errealitate berrira eguneratzea.
- Adikzioak prebenitzearen garrantziari buruzko kontzientzia sortzea eta zerbitzura orientazioa edota laguntza eskatzera joateak dakarren estigma apurtzea.
- Drogen testing-zerbitzua mantentzea. (Ai Laket!)

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- Alkoholaren prebentzio-zerbitzua eskaintzea, bai alkoholimetriak eginez, bai sortzen diren eskaerei erantzunez.




ERAGILE GARRANTZITSUENekin EGINDAKO EZTABAIDA-FOROEN ONDORIOAK

Guztira 60 pertsonen hartu dute parte hurrengoko banaketarekin

Generoaren arabera

Gizonak
%16,7



Emakumeak
%83,3

Sektorearen arabera

Hezkuntza



%16,6

Udal langileak



%50

Osasun langileak




%25

Kirola eta aisialdia



%8,3

Zonaldearen arabera



ADIKZIOEN PERTZEPZIO OROKORRA

SUBSTANTZIARIK GABEKO ADIKZIOAK



Talde desberdinek jokabide adikzioak osasun larrialdiarekin batera handitu direla deritzote, bereziki aipatzen dituzte **kirol apustuak, bideojokoak eta sare sozialak** eta mobila tresna bezala.



Mugikorren eta bidejokoen erabilera adin goiztiarrietan hasten dela aipatzen dute, **10 eta 12** urte bitartean. **Kirol apustuen erabilera 16 urtetik gorakoekin** lotzen dute. **Apustuak, bideojokoak eta pornografia** gizonezkoekin lotzen dituzte gehiago eta **sare sozialak emakumezkoekin**.

SUBSTANTZIADUN ADIKZIOAK



Talde guztietan gehien aipatu diren substantziak **alkohola eta kannabisa** dira. Bigarren maila baten tabakoa aipatzen da, partaideek era bakanean aipatzen dituzte speed, kokaina eta heroina kontsumoak. Talde guztietan alkohol eta kannabis kontsumoaren **normalkuntza eta arriskuen pertzepzio** eza aipatzen dute.



Generoaren arabera ez dago taldeen arteko adostasuna, talde batzuetan desberdintasun esangutsurik ez dagoela diote, beste batzuetan berriz, emekumeen partetik alkohol kontsumo gehiago eta goiztiarriago dagoela diote eta gizonen partetik berriz, kannabis kontsumo handiagoa. Alkohol kontsumoa gazte zein helduekin lotzen dute, baina **kontsumitzen hasteko adina aurreratu** dela diote eta gazteek mozkontzeko edaten dutela.



Orokorrean **kannabis eta tabako** kontsumoa **eguneroko** edo aste barruko kontsumoarekin lotzen dute, **alkohola berriz asteburuko** kontsumoarekin lotzen dute. Kontsumitzeko lokalizazio bezala, **lonjak, terrazak eta bide publikoa** aipatzen dituzte, bereziki aipatzen dituzte Gernikako zonalde desberdinak, Auditorioa edo Seber Altube, besteak beste. Gazteen arteko mikrotrafikoaren igoera aipatzen dute baita ere.



ANTZEMANDAKO ARRISKU FAKTORE NAGUSIAK

HURRENGOKOAK DIRA TALDEEK AIPATUTAKO ARRISKU FAKTOREAK GARRANTZIAREN ARABERA:

1

**GIZARTEAREN PARTETIK
NORMALKUNTZA ETA
SUBTANTZIEN ETA IKT-EN
ARRISKUEN PERTZEPZIO EZA**

2

**FAMILIAREN EREDU ETA
HEZKUNTZA EREDU DESEGOKIAK**

3

**NERABEZAROAREN BEREZKO
EZAUGARRIAK: KIDE IZATEAREN
BEHARRA**

4

AISIALDIRAKO ALTERNATIBA EZA

5

**GABEZIA EMOZIONALAK:
AUTOESTIMU TXIKIA**

6

**LEKU PRIBATUETAKO
KONTSUMOAK: LONJETAN
ESATERAKO**

**KONTSUMOEN IGOERA OSASUN LARRIALADIA DELA ETA, ERAKUNDEEN
ARTEKO SARE LAN EZA, LEGEDIAREN AURREKO INPUNITATEA ETA
IKASLERIA HERRI TXIKIETATIK GERNIKARA ALDATZEA**



BABES FAKTOREAK ETA LEHENTASUNEZKO ILDOAK



HEZKUNTZA MAILAN PREBENTZIO LANA SUSTATU
ESKUHARTZEAK ARINAGO HASIZ (LEHEN
HEZKUNTZA) **IKASLEEN GAITASUN SOZIO-
EMOZIONALAK** JORRATZEA ETA SUSTATZEA.
IKASTETXEETAN **ADIKZIOEN ERREFERENTEAREN**
FIGURA GEHITZEA.



FAMILIA ARLOAN , HAUEI ZUZENDUTAKO SAIOAK
AURRERATZEA, SEME-ALAK IZATEKO INTENTZIOA
DUTEN FAMILIAK KONTUAN HARTUZ. **GAITASUN
EMOZIONALAK ETA IKT-EN ERABILERA**
LEHENTASUNEZ LANDUZ. HORRETAZ GAIN
BEHARREZKO DA SAIO HAUETAN **FAMILIEN
PARTAIDETZA SUSTATZEA.**



ARLO KOMUNITARIOAN GIZARTE
ERAGILEEN **SARE LANA SUSTATU** .
GAZTEEN LONJETAN PREBENTZIO
LANA EGITEA ETA **KALE**
HEZITZAILEAREN FIGURA
INDARTZEA. JAI INGURUETAN
TESTING ETA ALKOHOL
INFORMAZIOA EMATEKO EKINTZAK
SUSTATZEA



AISIALDI OSASUNTSURAKO
ALTERNATIBAK HANDITZEA
ETA PREBENTZIO LANETAN
GAZTEEN PARTE-HARTZE
AKTIBOA INDARTZEA




ADIKZIOEN ZERBITZUA
BIZTANLERIARI ETA
IKASLERIARI HURBILDU
IKUSGARRITASUNA HANDITZ.

HERRITARREN PARTE HARTZEA:

HERRITARREN PARTE-HARTZE INKESTAREN ONDORIOAK



PARTAIDEEK HAUTEMANDAKO ARAZO NAGUSIAK:



Nola egin diezaiokegu aurre arazo hauei?




BALIABIDEEN BALORAZIOA ETA EZAGUTZA:



Partaideen artean 6tik 5ek ez dute ezagutzen Adikzioen Prebentzioan egindako lana

Zerbitzuen puntuazioa



Zeintzuk dira indartu edo sustatu beharreko ekimen edo ekintzak?



%83,3

Prebentzioa eta sentsibilizazioa gazteekin

%16,6

Adin guztientzako aisialdirako alternatiba osasuntsuak

%16,6

Aisialdi eta kirolerako azpiegiturak

7. HELBURUAK ETA LEHENTASUNEZKO ILDOAK: GARATU BEHARREKO EKINTZAK

Informazio guztia kontutan hartuta...

UDALERRIKO IKASLE ETA
HELDUEI EGINDAKO
INKESTA

ESKURAGARII DAGOEN
BIBLIOGRAFIA
ZIENTIFIKOA

EZTABAIDA
TALDEAK

EUSKADIKO ADIKZIOEN
VII. PLANA
(20217-2021)

UDALERRITARREN HAUTEMATEA ETA ORGANISMO
PUBLIKO ETA PRIBATUEN INKESTEN DATUAK



PROPOSAMENA

Lehentasunezko
ildoak
(4)

Helburuak

Lehentasunezko
ildo bakoitzeko

Programak

Hezkuntza
Familia
Komunitatea

**Proiektuak
eta
Ekintzak**

Programa bakoitzeko

1. Lehentasuneko ildoak

Osasunaren prebentzioa eta sustapena. Babes-faktoreak indartzea eta antzemandako arrisku-faktoreen eragina minimizatzea, jokabide eta espazio osasungarriak sustatzeko.




Helburuak



1.- Babes-faktoreak, jarrerak eta ohitura osasungarriak indartzea 18 urtetik beherakoen artean jokabide arriskutsuak murrizteko:

- Kalteberatasun-egoeran dauden gazteei espazio seguruak (taldekoak) eskaintzea, arrisku-faktoreen ondorioak murriztu ahal izateko
- Trebetasun sozioemozionalak lantzea-kudeaketa emozionala



2.-Familiak gaitzea eta ahalduentzea kalteberatasuna eta arrisku-baldintzak murrizteko:

- Familiei ezagutza eta tresna praktikoak transmititzea, gurasotasun baikorraren oinarrietatik, haurtzaroaren eta nerabezaroaren arteko bilakaera-aldietan.
- Babes-faktoreen sustatzaile bezala duen garrantziaz sentsibilizatzea
- Familiei hezkuntza-jardueran lagun diezaieketen gaiei buruzko informazioa ematea

1. Lehentasunezko ildoak

Osasunaren prebentzioa eta sustapena. Babes-faktoreak indartzea eta antzemandako arrisku-faktoreen eragina minimizatzea, jokabide eta espazio osasungarriak sustatzeko.



Helburuak



3. Irakasleei aholkularitza eta prestakuntza ematea, arrisku-faktoreen ondorioak gutxitzeko eta ikasleen artean babesa sustatzeko.

4. Tailer, ekintza berriak diseinatzeko eta eguneratzen jarraitu, ikusitako beharren, eskarien eta sortu daitezkeen errealitate berrien arabera.

EKINTZAK

- Gizarte Trebetasunak lantzeko taldeko eskuhartzeak (9-12 urte)
 - Nerabeen taldeak
- Gazteen lonjetan eskuharzteak
- Sentsibilizazioa 12 eta 16 urte bitarteko adingabeekin

- Identifikatutako beharren arabera adin tarte desberdinentzako programak diseinatzea babes faktoreak eta ohitura osasuntsuak sustatzeko.
- Ikastetxeen eskaera zehatzei erantzutea.
- Aholkularitza, arreta individualizatua: substantzia edo substantziarik gabeko adikzioekin zerikusia duten inguruko zerbitzu espezializatuei buruzko informazioa ematea.

- Lehen Hezkuntzako ikasleekin tailerrak: trebetasun sozio-emozionalak, sare sozialen erabilera osasuntsua, hezkidetza,...
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta LHko ikasleekin tailerrak: harreman psikoafektiboak, genero estereotipoak, substantziarik gabeko kontsumoak,...
- Irakasleekin tailerrak: autoritate baikorra, gatazken konponketa,...
- Familiarekin tailerrak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza) hazkuntzari buruzko zailtasunak edo zalantzak lantzen dituztenak: adimen emozionala, hezkuntza-ereduak, tekno adikzioak
- IGE-kin koordinazioa

2. Lehentasuneko ildoak

Eskaintza eta eskaria murriztea. Helburu orokorrak dira adikzioak sortitzaketen substantzia eta jardueretarako sarbidea mugatzea, horien kontsumoarekiko tolerantzia soziala murriztea eta indarrean dagoen araudia era efikazean betetzen dela sustatzea.

Helburuak

1. Droga instituzionalizatuekiko tolerantzia soziala murriztea
2. Prebentzio-konpromisoko giroa bultzatzea:
 - Jai eta aisialdi eremuetan informatzeko, prebenitzeko eta arriskuak murrizteko esku-hartzeak sustatzea
- 3.-Gizartean onarpen handia duten droga normalizatuen arrisku-pertzepzioa handitzea:
 - Hezkuntza eta jai eremuetan alkoholaren gehiegizko erabileraren prebentzioa
 - 12-16 urtetik beherakoak sentsibilizatzea

Ekintzak

- “Alkohol arriskua” Programa DBH 4. mailatik aurrera
- “Testing” Programa jai/aisialdi eremuan: informazio-puntua eta drogen azterketa
- Alkoholimetriak aisialdiko lekuetan, egun eta jai seinalatuetan.
- “Mimarte” Proiektua: alkoholaren abusuaren prebentzioa
- Osasunerako hezkuntzarako jarduerak eta adikzioen prebentzioa



2. Lehentasuneko ildoak

Eskaintza eta eskaria murriztea. Helburu orokorrak dira adikzioak sortitzaketen substantzia eta jardueretarako sarbidea mugatzea, horien kontsumoarekiko tolerantzia soziala murriztea eta indarrean dagoen araudia era efikazean betetzen dela sustatzea.

Helburuak

1. Droga instituzionalizatuekiko tolerantzia soziala murriztea
2. Prebentzio-konpromisoko giroa bultzatzea:
 - Jai eta aisialdi eremuetan informatzeko, prebenitzeko eta arriskuak murrizteko esku-hartzeak sustatzea
- 3.-Gizartean onarpen handia duten droga normalizatuen arrisku-pertzepzioa handitzea:
 - Hezkuntza eta jai eremuetan alkoholaren gehiegizko erabileraren prebentzioa
 - 12-16 urtetik beherakoak sentsibilizatzea

Ekintzak

- “Alkohol arriskua” Programa DBH 4. mailatik aurrera
- “Testing” Programa jai/aisialdi eremuan: informazio-puntua eta drogen azterketa
- Alkoholimetriak aisialdiko lekuetan, egun eta jai seinalatuetan.
- “Mimarte” Proiektua: alkoholaren abusuaren prebentzioa
- Osasunerako hezkuntzarako jarduerak eta adikzioen prebentzioa



3. Lehentasunezko ildoak

Ezagutzaren kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa. Komunitatea prestatzea, gaitzea eta laguntzea, gerora programak eta proiektuak garatzen parte har dezan sustatzeko

Helburuak

1. Hausnarketa
bateraturako guneak
bultzatzea

2. Ezagutza zabaltzea:

- Prebentzioaren arloko prestakuntza-espazioak sortzea



Ekintzak

- Hitzaldiak, formakuntzak antolatzea...
- Kongresuetan, sinposioetan... parte hartzea
- Gazteekin harremanetan dauden gizarte eragileen (begiraleak, entrenatzaileak...) prestakuntza arriskuen murrizketen inguruan
- 12 urtetik gorako ikasleen kontsumoei eta portaera-ohiturei buruzko datuak eguneratzea
- Busturialdeko Mankomunitateko Adikzioen I. Planaren ebaluazioa
- Adikzioen prebentzioari buruzko eskualdeko baliabideen gida bat egitea.

4. Lehentasunezko ildoak

Koordinazioa

Helburuak

1. Sareko lana sustatzea, pertsona edo kolektibo kalteberen sentsibilizazioa eta detekzioa errazteko
 - Busturialdeko Mankomunitateko jarduera, talde ,elkarte edo gizarte-eragileren ekimenak babestea.
2. Baliabide eta/edo eragile komunitarioen arteko koordinazioa:
 - Kultur eta kirol elkarteei, gazte taldeei... laguntza eta aholkularitza eskaintzea
 - Sinergiak aprobetxatzea, esku-hartzeetan partaidetza eta lankidetzak bultzatzeko.
3. Substantziekin edo substantziarik gabeko adikzioekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa, orientazioa, aholkularitza edo deribazioa eskaintzea

Ekintzak

- Ikasturte akademiko bakoitzean ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin landu beharreko saioak aurkeztea.
- Gernikako Ospitaleko saioan parte hartzea, Pediatria eta emaginarekin
- Busturialdeko Mankomunitatearen Adikzioen I. Planaren aurkezpena eta hedapena
- Prebentzio Zerbitzuaren jarduerak komunikabideen bidez zabaltzea
- Profesionalei aholkularitza eta laguntza eskaintzea



Busturialdeko Gizarte
Zerbitzuen Mankomuniatea
Mancomunidad de Servicios
Sociales de Busturialdea


Ekintzak hiru programatan antolatzen dira, eremuaren arabera.



**Hezkuntza
Programa**



**Familia
Programa**



**Komunitate
Programa**

8. JARRAIPENA ETA PLANAREN EBALUAZIOA:

Plana diseinatu eta ezarri baino lehen egiten da. Ohikoa programa, proiektu edo ekintza bakoitzarekin egitea da, ea hurrengoko puntuak kontuan hartzen diren ala ez:

- ✚ Interbentzioari buruzko informazio erabilgarria eskaini dezaketen adierazleak edo aldagaiak
- ✚ Informazioa eskuratzeko metodo eta tresna egokiak aukeratu
- ✚ Datuak ezarri noiz eta zenbatetan bilduko diren datuak
- ✚ Jatorrizko planarekin praktikan aplikatu diren praktika, osagai eta metodoen analisia.
- ✚ Praktikan erabilitako baliabideen berrikuspena jatorrizko planarekin alderatu.
- ✚ Esku-hartzeak helburu hartzaileari iritsi zaizkiola egiaztatu: zein neurritan bete den, esku-hartzearen iraupena eta zenbat jardura egon diren jatorrizko planarekin alderatuta.
- ✚ Biztanleriaren deskribapena, sexuaren, adinaren, tamainaren arabera...baita programa utzi dutenak eta horien zergatiak ere.
- ✚ Esku-hartzearen kalitatea aztertzea: subjektiboa (onarpena, parte-hartzea edo identifikazio maila, besteak beste) eta helburuak esku-hartzearen protokolizazioa, uzteak, etab...)


Proposatutako ebaluazioaren diseinuaren eta garapenaren helburu orokorra Stufflebeamek eta Shinkfieldek (1987) adierazitako ebaluazioaren oinarritzko hiru funtzioei dagokie: esku-hartzearen hobekuntza edo garapena (improvement), kontuen errendimendua edo erantzukizuna (accountability) eta etorkizuneko ekintzetarako adibideak (enlightenment).

Helburuen balioari eta merezimenduari, plangintzari, gauzatzeari eta gure plan, programa, proiektu edo jarduketan eraginari buruzko informazio erabilgarria eta deskribatzailea

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

identifikatu, lortu eta emateko prozesua da ebaluazioa. Ebaluazioaren bidez jakin dezakegu zer gertatu den, eta jakin dezakegu lortu nahi genuena lortu dugun ala ez.

Ebaluazioa ez da plana amaitzean bakarrik egiten, baizik eta prozesu osoan zehar garatzen da, eskema honi jarraituz:



1. Diseinuaren eta plangintzaren ebaluazioa

Jakina, esku-hartzearen aurretik egiten da, zerbitzuaren koordinazioaz arduratzen den pertsonarekin batera, prozesu honen bidez, honako hauek egiaztatu eta egokitzen dira:

- ✓ Enpirikoki behar bezala abalatutako esku-hartze teoria batean oinarritzen den.
- ✓ Egoera eta testuinguruaren inguruko egindako diagnostikoarekin edo zerbitzuaren helburuak finkatzen dituen oinarriekin bat datorren.
- ✓ Era berean, esku-hartzea gidatu behar duten printzipioekin koherentea den.
- ✓ Esku-hartzearen alderdi guztiek elkarren artean koherentzia gordetzen duten.
- ✓ Azkenik, esku-hartzea behar bezala ebaluatzen aukera dagoen.

Alderdi desberdinen arteko koherentzia edo erlazio logiko hori abiapuntuko esparru teorikoak, eskura dagoen ebidentzia enpirikoak eta hautatutako estrategiak zehaztuko dute.

Oro har, droga-mendekotasunei buruzko informazio programak edo zerbitzuak, planaren xede diren herritarren jarrerak aldatzeko helburua dute, pertsona horien ezagutzak aldatuta. Hala ere, programa hauek, motz geratzen dira, ezagutzak aldatzeaz arduratzen badira bakarrik. Hori dela eta, osagai kognitiboak ez ezik, osagai afektiboak edo emozionalak ere lantzen dituen metodologia proposatzen dugu, jarreraren aldaketak arrakasta handiagoz egin ahal izateko.

2. Estaldudaren ebaluazioa:

Adikzioen Prebentzio Plana zenbat biztanlerengana iritsi den jakiteko aukera emango digu, irits zitekeen edo iritsi behar zuen guztizkoaren artean, iritsi zen aurreko esperientzietatik abiatuta.

3. Prozesuaren ebaluazioa:

Prozesuaren ebaluazioak Planaren funtzionamendua baloratzeko aukera ematen du. Zuzeneko behaketaren bidez egiten da, eta, batez ere, esku-hartze maila bakoitzean aurreikusitako jardueren betetze-maila erregistratuz, baita hasieran aurreikusitako jardueren kronogramaren jarraipena eginez. Prozesuaren ebaluazioa egiteko, datuak erregistratzeko tresnak erabiliko ditugu, zuzeneko fitxa-galdetegiak adibidez, edota Planaren jardueretan parte hartu duten pertsonekin beharrezkoak diren elkarrizketak.

4. Eraginen eta emaitzen ebaluazioa:

Emaitzen ebaluazioa plana egin ondoren, biztanleria hartzailearekin egindako programa edota jardueren helburu eta ondorioak lortu diren jakiteko balio du, hau da, lortu nahi ziren aldaketak lortu diren jakiteko.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

Ebaluazio mota horrek, prozesuen ebaluaziorekin konparatuz, zailtasun metodologiko handiagoa dakar; programa bera, haren ondorioekin lotu nahi baititu (aldagaien arteko loturak ezarri nahi ditu, eta, horretarako, esku har dezaketen elementuak, hau da emaitzak aldatzeko gai direnak, kontrolatu behar ditu).

Honako hau kontuan izanda, **esku-hartzearen ondorioek** puntu hauek hartzen dituzte barnean:

⊙ Ebaluazio adierazleak:

- ❖ Alkohola, tabakoa eta kalamua kontsumitzen hasteko adinean atzeratzea
- ❖ Tabakoaren, alkoholaren, kalamuaren zein legez kanpoko beste droga batzuen gaurregungo eta eguneroko kontsumo-tasak murriztea
- ❖ Alkoholaren kontsumo intentsiboaren prebalentzia murriztea
- ❖ Gehiegizko jokoaren edo joko arriskutsuaren prebalentzia murriztea
- ❖ Interneten arrisku edo gehiegizko erabileraren prebalentzia murriztea
- ❖ Normaltasunez kontsumitzen diren drogen arriskuen pertzepzioa handitzea: alkohola, tabakoa eta kalamua gazteen artean adibidez.

⊙ Planteamendua kualitatiboa edo kuantitatiboa.

⊙ Informazioa biltzeko erabiliko diren tresnak, iturriak, biltzeko maiztasuna eta analisi motaren aurreikuspena.

Emaitzen araberako ondorioen lanketa:

- ⊙ Aurreikusitako emaitzen lorpen maila.
- ⊙ Emaitza edo ondoriorik garrantzitsuenak
- ⊙ Esku-hartzearen ondorioz espero ziren emaitzak, programak berak sortu dituen segurtasun maila

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomuniatea

- ⊙ Eraitza negatiboen inguruan eman daitezkeen azalpenak eta etorkizunerako proposamenak
- ⊙ Zer antzekotasun eta desberdintasun ditugu helburu eta hartzaile antzekoak dituzten beste plan batzuekin alderatuta?

